

TOKIKOM

2013ko iraila | 129. zenbakia

# aitzak

txorierriko a

Fernando Olabarrieta

**Familiako  
psikologoa**



# TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA

emaiozu  
euskarari!



2013-14 ikasturtea  
Matrikula zabalik




TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA  
Herriko Plaza, 3 - 48160 DERIO  
Tel. 94 454 00 62  
euskaltegia@txorierri.eu



Enara kalea, 10 behea  
Zamudio

94 452 04 96  
600 78 64 46

Errefortzu eta errekupeazio eskolak  
Ingeles eskolak  
Maila guztiak  
Dirulaguntzak zamudioztarrentzat

Ikastegi homologatua

## LARRABETZU MUSIKA ESKOLA

MATRIKULA ZABALIK



Errebale, 7 behea  
94 455 70 66



FORMACION Y TRADUCCIONES  
INGLES ESKOLA

- INGELES ESKOLA
- MAILA GUZTIAK
- AZTERKETA OFIZIALAK EGITEKO PRESTAKUNTZA
- IRAKASLEEN 16AN HASI GARA
- EMAN IZENA (guztira ikasleak 1500ak gaititu ditu 2013an)
- ONE-TO-ONE ESKOLA
- PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
- ESKOLAZ KANPOKO KLASEAK
- ITZULPEN-ZERBITZUA

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garaioitza 120 D  
48196 LEZAMA  
T: 94 455 64 69

Erremeteri 16  
48150 SONDIKA  
T: 94 453 64 08

INGELESA  
(Zamudiozko eskolak)  
3.021 ordu ordu

FRANTSESA  
TXINERA  
EUSKARA  
GAZTELANA

ESKOLA LAGUNTZA  
(Zamudiozko eskolak)  
(Zamudiozko eskolak)

ENPRENTZARAKO IKASTARORAK  
MAILA GUZTIAK  
ORDUTEGI MALGUAK



IKASGELA  
AKADEMIA

ETORKI  
ETA HIZKUNTZAK  
IKASTERA ANIMATU

Aita Patxi Ugaldes, 12 - 48195 Larrabetzu Tel: 615 70 73 61 ikas03oa@gmail.com

# E.class

Zamudio

Txorierriko et., 14  
944520331

Ingeles Klase  
partikularrak

# EGIZU

CENTRO DE ESTUDIOS

- ESKOLA-LAGUNTZA
- IKASGAI GUZTIAK
- LH, DBH, BATXILLERGOA, SELEKTIBITATEA
- ERDI- ETA GOI-MAILAKO ZIKLOETARA SARTZEA
- INGELES ETA EUSKARA, MAILA GUZTIAK
- ORDUTEGIA: GOIZEZ ETA ARRATZALDEZ

MITXINE KALEA 8  
SONDIKA 48150  
Telefonoa: 656 70 36 85



**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekileri, Tximintx eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47  
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Jabier Lekerika, Joseba Butroe, Fernando de Lera, Gaizka Peñafiel, Nestor Sangroniz, Mari Carmen Noya, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 7.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Santi Ugalde

22 Kartzarot taldea

30 Euskal jaia, Sondikan

- 4** Eritxia
- 6** Laburrak eta albistekak
- 12** Gurean izan da... Santi Ugalde, aktorea
- 14** Gaztea eta... Amaia Agirre, musikaria
- 16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 18** Fernando Olabarreita, psikologoa
- 22** Asier Vicario, Kartzarot taldearen abeslaria
- 24** Aitor Madariaga, euskal cowboy-a
- 26** Solidaridadearen jantokia
- 28** Euskal jaia, Sondikan
- 30** Berbalagunen txokoa
- 32** Deriotik Iruñera
- 33** Baserri mundua... Bertokoa indartuz
- 34** Atzerriko hizkuntzak jakiteko garrantzia
- 35** Aikorrizketan... Euskaldunon ingelesa
- 36** Sukaldaritza
- 37** Denborapasa
- 38** Agenda

**HARATEGIA**  
**ALBERTO**  
Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO

**ama**  
**taberna**  
Inesola plaza, 9 - Beha (Zamudio)  
94 452 93 09

**ESTILISTA**  
**EVA ARDINES**  
**AmAr**  
Asteartea - Ostirala: Betatik-15etara  
Larunbata: Betatik-14etara  
Uribe Plaza, 1 - Beha 48170 Zamudio  
Telefonoa: 94 452 04 19; (Aurreko banda)



**JABIER LEKERIKA**  
(Irakaslea)

**G**ure eguneroko bizitzan nahi ez ditugun gertakizun asko izaten dira, eztabaidak, haserreak eta abar. Eta bakoitzak bere izaeraren araberrako irtenbidea bilatzen du, batzuetan hala-holakoa dena. Hiru jarrera daude egoerei aurre egiteko. Haietako bat jarrera pasiboa da, "ez dut ezer jakin nahi" edo "utzi bakean" bezalako irtenbideak erabiltzen dituena, baina batzuetan gure nortasunarekin edo iritziekin bat ez datorrena. Beste jarrera bat, agresiboa dena, guztiz kontrakoa da. Jarrera

agresiboa erabiltzen dugunean, besteari eraso egiten diogu, begirunea galtzen diogu. Barruan dugun deabrua pizten da. Baina badago beste jarrera bat biren artean dagoena: jarrera asertiboa. Hori gure ideiak besteei transmititzeko dugun trebetasuna da, minik egin barik eta modu baketsuan eta errespetutsuan.

Adibide bat jarriko dut: ikasle batek piper egiten du eskolan eta oso nota txarrak atera ditu. Irakasleak joera haue-tako bat har dezake:

1. Hauek dira zure hutsegiteak eta hemen daude zure azterketak. Ikusi emaitzak. (Pasiboa).

2. Ikusi zelako notak atera dituzun! Gainera, hutsegite asko egin dituzu! Zigortuta geldituko zara eta etxera deituko dut. Hemendik aurrera bukatu dira jaiak, bideojokoak eta lagunekin lokalean egotea. Egutero lau ordu eman beharko dituzu ikasten. (Agresiboa).

3. Nota txarrak atera dituzu eta hutsegiteak ere egon dira. Horrela jarraituz

gero, ez duzu ikasturtea gaudituko. Gurasoekin hitz egingo dut eta hemen-dik aurrera ahalegin handiagoa egin beharko duzu. Etxeko ikastorduek zorrotzago bete beharko dituzu. (Aser-tiboa).

Gure eguneroko harremanetan ele-mentu bi nahasten dira: arrazoiak eta emozioak. Eta handik datoz, alde batetik, pentsatzen duguna; eta bestetik, senti-tzen duguna. Bien arteko oreka lortzen dugunean, asertiboak izateko bidean egongo gara, eta beste trebetasun bat-zuk lantzeko aukera ere izango dugu, hala nola entzute aktiboa edo enpatia.

Hona hemen gako batzuk asertiboak izan nahi dutenentzat: asertiboek pentsatzen dutena esaten dute, baina beren sentimenduak eta adierazpenak badatoz bat. Errespetua diete besteei eta halako esaldiak erabiltzen dituzte: Hitz egin ahal dugu? Egin dezagun... Nola konponduko dugu hau? Zer iruditzen zaizu? Ea praktikan jartzera ausartzen garen!

**E**gia esateko, mira eginda edo harrিতuta geratzeko motiborik ez dugu faltan. Komunikazio teknologiei esker munduko berri dugunetik entretenituta bizi gara. Lehen, ba, pasadizo xebreren bat edo beste modan egoten zen denbora batean, luzaroan batzuetan: ez dakit non, ez dakit nori gertatua... Hango barreak! Haren barreak!

Orain ere lehengo antzera, xebreriarik ez da falta, baina askoz ere arinago eta lasterrago agertzen eta desagertzen dira, ze gaur egun "suzedido"ren bat zabaldu orduko beste pilo bat egoten dira ilara egi-

## Hau bai hau!



**JOSEBA BUTROE**  
(Irakaslea)

ten, itxaroten, telebistetan... Eta zer esanik ez Interneten, hor bai hor entretenimendu amaigabea!

Baina txarrena azkenean dena entretenimendua dela pentsatzera heldu gaitzkeela. Xebrereria baten ostean halako bonbardeo batzuen albisteak komentatzen dira naturaltasunez, edo langabeziaren datuak, edo... Baina inportanteena kafekole-txeak edo antzeko graziak dira, ze bizitzen jarraitzeko animo apur bat ere behar da-ta, ezta? Baina, egia esateko, larritzeko modukoak dira gaurko por-taerak: txikieriekin motibatu eta gauza serioekin askok zirkinik ere ez.

**Garmendia ardoak**

Pineta pol., P-3B  
ZAMUDIO  
Tel./Faxa: 94 452 00 49

**ERREKA LONDO ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WiFi gunea



## “Euskaraz bizi nahi dut” lasterketa

Txorierriko euskara elkarteek eta Txepetxa AEK euskaltegiak lasterketa bat antolatu dute urriaren 12rako, “Euskaraz bizi nahi dut” kanpainaren haritik. Egitasmoa Kontseiluak sustatu du eta euskaraz bizitzeko nahia adieraztea du helburu.

Hitzordua Derioko frontoian ipini dute goizeko 10:30ean eta parte-hartzaileek hiru ibilbide edukiko dituzte aukerara. Lehenengoa umeei dago zuzenduta eta laburra da; bigarrena hiru kilometrokoa da; eta hirugarrena, bost kilometrokoa. Lasterketak 11:00etan hasiko dira.

Izena emateak zazpi euro balio du umeentzat eta opari kamiseta bat jasoko dute. Nolanahi ere, “Euskaraz bizi nahi dut” kamiseta badute, bi euro ordaindu-

ko dute. Nagusientzako izen-emateak 10 euro balio du eta hauei ere kamiseta baina emango zaie; kamiseta badute, bost euro ordainduko dute.

Hiru bide daude izena emateko: Kontseiluaren webgunearen bidez, euskara elkarteetan edo Txepetxa euskaltegian. Dorsalak eta kamisetak urriaren 10ean eta 11an hartu ahalko dira Derioko Kultur Birikan, 18:00etatik 20:00etara. Lasterketaren egunean bertan ere hartu ahalko dira, 10:00etatik aurrera. Antolatzailerak lasterketan parte hartzeko gonbidapena egin diete herritarrei, “euskararen normalizazioak beharrezkoa duen bultzada herrikoia emateko. Parte hartu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrika dezagun”.

## Eskaintzak, Derioko merkatarien eskutik

Danerik Paraje! Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarte Profesionalak herriko bizitza eta merkataritza dinamizatzea du helburu, besteak beste. Eta horretarako, ekintza bi antolatu dituzte urrirako. Alde batek, outlet bat egingo dute urriaren 4an eta 5ean. Hala, dendariak kalera aterako dute saldu ez den udako stocka eta beherapen bereziak eskainiko dizkiete erosleei. Postuak denda bakoitzaren aurrean ipiniko dira. “Hau aurreko urteetan ere egin dugun ekintza bat da eta, egia esateko, oso ondo funtzionatzen du. Jendea azken orduko pagotxak erostera animatzen da”, esan du Ion Otaolea elkarteko presidentea. Bestetik, urriaren zehar % 5eko beherapena ezarriko zaie elkartearen txartela erabiliz egiten diren 400 euro arteko erosketei.

## Auto klasikoak

Urriaren 6an, auto klasikoaren kontzentrazioa egingo da hirugarren aldiz Loiu. Egun horretarako antolatutako ekintzak herriko plazan izango dira. Auto eta moto klasikoak 10:00etatik aurrera helduko dira herrira, eta 11:30ean irtengo dira handik, Txorierrin zehar ibilbide bat egiteko. Bestalde, ikusleek gehien gustatzen zaien autoari botoa emateko aukera izango dute. Zozketa 12:30etik 13:30a arte egingo da. Haren ostean, sariak banatuko dira eta kopau bat eskainiko da.

**HORTZ KLINIKA**  
Idoia Zubietta  
Ostun-azentua & Hortz-estetika  
HORTZ-PLASTIKAK - ORTODONTZIA ESTETIKAK  
DALARAKAZUN HELDUEK  
Dr. Amilra kalea, 11 - 1. esk. • 48911 HELDUE • Telefonoa: 94 441 63 22  
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

**GAMINIZ  
JATETXEA**  
Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com  
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio · Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N  
www.gaminiz.com

**TALLERES JUAN ANDRES**  
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA  
PUNTUAN JARTZEA  
Torrelarragoiti Ind., 8 - 216 Pab.  
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

RPS: 184/10  
**OPTIKA IKUSLAN**  
Arbolantxa kalea, 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**LEANDRO  
LANDETA**  
HARAGITEGIA-URDAITEGIA  
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

## Inaugurazioa, Landabarrin

Landabarrin Derioko klubak gero eta zerbitzu gehiago ditu. Hala, igerilekuak zabaldu ziren iazko udan eta aurtengo abuztuan kafetegia-jate-txea eta paddel pistak jarri dira martxan. Azpiegitura berriek oso harrera ona eduki dute, aisialdi-aukera gehiago ematen dituztelako eta kafetegiak prezio onak eskaintzen dituzelako. Klubera hurbiltzen diren lagunak Deriokoak ez ezik beste herri batzuetakoak ere badira. Azpiegiturak irailean inauguratu dira ofizialki. Besteak beste, paddel erakustaldi bat egon zen eta kopau bat eskaini zen.

## Erabilera anitzeko areto berria, Derion

Abuztuaren 3an, San Esteban Egunean, Doneztebe Aretoaren lehenengo fasea inauguratu zen Derion. Erabilera anitzeko azpiegitura berri bat da, Ganbeko hariztiaren inguruan kokatua. Aretoak 80 m<sup>2</sup> ditu, eta 40 lagunentzako tokia. Bertan hauek atonduko dira: sukalde bat, udal txoko bat eta kultura-jarduerak egiteko gune bat; esaterako, hitzaldiak, bilerak eta kontzertuak egiteko. San Esteban Eguneko meza ere bertan egingo da. Proiektuaren bigarren fasean, barrutik egokituko da eraikina. Fase hori datozen hilabeteetan egingo da. Besteak beste, meza, kopaua, sukalki txapelketa eta antzerkia izan ziren aretoaren lehenengo fasearen inaugurazioan.



## 400dik gora korrikalari, Kepa eta Areneren oroipenean

a: Nestor Sangroniz

Gure señaek Derioko elkarteak Kepa eta Arene Sangronizen oroimenezko lasterketa antolatu zuen irailaren 15an. Ekintza hirugarren aldiz egin da aurten eta bertan 427 korrikalarik hartu dute parte. Helduek sei kilometro egin zituzten herrian zehar eta umeentzat ibilbide bi presatu ziren: bata, 500 metrokoa; eta bestea, 1.500 metrokoa.

Elkartea oso pozik azaldu da jendearen erantzunarekin. "Urterik urte, gero eta parte-hartzaile gehiago daude, eta, gaine-

ra, asko umeak dira. Aurten, esate baterako, ia 200 ume aritu dira lasterketan", esan digute. "Kirol egokituko lasterkariak ere parte hartu dute ekintzan eta hori benetan atsegin dugun gauza da".

Kepa eta Areneren oroimenezko lasterketa oso harrera ona du eta Derioraino beste herri batzuetako jende asko hurbiltzen da lasterketan aritzeko, hala nola Trapagaraneko eta Santutxuko lasterkariak. "Pozik gaude, lasterkariak gure helburua betetzen laguntzen digutelako, alde batetik, gure mezuaren inguruan batuz, eta bestetik, Kepa eta Arene, oroituz".



**ASADOR  
ARAMENDI**

**EZKONTZAK  
BATAIOAK  
BANKETEA  
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119  
Tifnoa.: 94 452 11 58  
ZAMUDIO



**ANKAPALU**



**LARRABETZU**  
☎ 94 455 81 97  
**LOROÑO BEHEKOA  
(BIZKAIA)**

Tel./faxa: 94 452 06 64  
Torrelarragoti ind. P-7  
48170 Zamudio (BIZKAIA)



**Restaurante  
JARRA - JATEKIN**

Eguneko menuak  
Menu bereziak  
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak



**PATXI  
KOOP**

FATXO KOOPERAZIARBA ELKARTEA  
Herriko pabiloia - Donostia 4, 48110 Zamudio (Bizkaia) - Tel. 944 522 587 - info@paxi-koop.com - www.paxi-koop.com

## Ondarearen jardunaldiak

Txorierrin ekitaldiak antolatu dira urrirako, Ondarearen Europako Jardunaldien haritik. Hala, Larrabetzun bisita gidatua egingo da Andra Mari elizara eta Anguleri jauregira, urriaren 5ean. Gidaria Sabin Arana izango da eta saio bi egingo dira: bata, euskaraz, goizeko 10etan; eta bestea, erdaraz, eguerdiko 12etan. Taldeak Udaletxeko Plazatik irtengo dira.

Lezaman ere bisita gidatua egingo da Andra Mari elizara eta Kurtzeko ermitara. Hori urriaren 19an izango da eta bertan parte hartu ahal izateko, izena eman behar da liburutegian: 94 455 61 26. Bes-

talde, Zamudioko San Martin elizaren berezitasunak eta altxor historiko eta kulturala ezagutzeko aukera egongo da urriaren 20an. Bisitari eguerdiko 12etan emango diote hasiera.

Azkenik, "Ondare eta eraldaketa historikoak" hitzaldia antolatu da Derion, urriaren 24rako. Hitzaldia arrastiko 7etan izango da Kultur Birikan. Era berean, herriko ondare historikoa zelan eraldatu den ezagutzeko, bisita gidatu bat egingo dute urriaren 27an, goizeko 11etan. Argibide gehiagorako, Kultur Birikara jo behar da.



### Azoka, Loiu

Urriaren 20an, Gastronomía eta Eskulangintzaren XXI. Azoka egingo da Loiu. Azoka 10:00etatik 14:30era arte egongo zabalik eta postuak herriko plazan, Alonsotegi plazan eta pilotalekuan ipiniko dira. Bertan baserriari lotutako produktuak erosteko aukera izango da: ortuariak, gazta, ezti, ogia... Horrezaz gainera, Bizkaiko txakolina eta euskal baserriko oilaskoa dastatu ahal izango dira 12etan. Bestalde, kirol erakustaldi bat eskainiko da eta Jantzi Jarauntsi elkarteak girotuko du goiza. Animaliak ere egongo dira eta umeak poni gainean ibili ahal izango dira.

### Frontenis txapelketa

Sondikan frontenis txapelketa antolatu dute datozen hilabeteetarako. Txapelketa bikoteka da eta maila bi egingo dira: emakumezkoak eta gizonezkoak. Partidak azaroaren 17tik aurrera jokatu dira asteburuetan Goronda Beko kiroldegiko pilotalekuan. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du bertan parte hartu ahal izateko, eta 30 euroko bermea ere ipini beharko da. Urriaren 14tik azaroaren 3ra arte eman ahal izango da izena.

LIBURUDEN DA PAPERDEN DA  
**ZAMUDIO**

Gorbea kalea, 5  
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**TXORIERRI MARMOLDEGIA**  
Sukalde eta bainugeletako harriak  
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
T./F.: 94 608 01 41-2

**GORBEIA MERTZERIA**

Gorbea kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06

**Binilo apaingarria**  
Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz  
Biniloaren tamaina: 43 x 58 cm  
6 eredu ezberdin  
Espatula dohañik  
Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK  
**19,90€**  
BEZ GABE

**cianoplan**  
global printers  
applications + business  
Bizkaiko ZTP, 105  
ZAMUDIO

## Ernai Txorierrri

Ernai Euskal Herri mailan sortu den gazte antolakundea da, hiru helburu nagusi dituena: independentzia, sozialismoa eta feminismoa. Antolakundeari lotutako taldeak Txorierrin ere osatu dira, Zamudion eta Larrabetzun hain zuzen ere. "Hamazazpi kide gara momentuz, baina lagun gehiagorengana heltzeko asmoa dugu. Izan ere, gure asmoetariko bat gazteria bildu eta bizkortzea da".

"Prest" kanpainaren ostean, "Zukgua" prozesuari ekin zioten, eta gazteen arazoak eta gaur egungo egoera aztertu zituzten. "Ondorio asko atera genituen. Horien artean, indibidualismoa deuseztatu behar dugula eta, horretarako, denok batu behar gara". "Zukgua" prozesuaren emaitza Ernai gazte antolakundea izan da. Hura Aste Santuan aurkeztu zen Orduñan eta 30 bat txorierritar joan ziren bertara.

Gazteak lanean ibili dira udan eta diagnostiko bat egin dute Txorierrriko herrietan, bertako errealitatea ezagutzeko eta haren aurrean beste aukera batzuk eraikitzeko. "Lan-ildo nagusiak ateratzeko, diagnostikoa egiten gabiltza oraindik".

Esan bezala, taldeak Zamudion eta Larrabetzun sortu dira, "baina gainontzeko herrietara zabaltzeko bidean gaude. Elkarkea Txorierrriko gazte guztiei dago zabaldua. Beraz, hurbildu eta parte hartu!". Elkarkeak pinak eta kamisetak ipin iditu salgai Aretxabala Larrabetzuko tabernan eta Susterrak Zamudioko tabernan.



## 700 lagun, Zamudioko zikloturistan

a: Mari Carmen Noya

Zamudio-Zamudio zikloturista herri-tarrek egutegian ondo markatuta duten hitzordua da. Hala, oso ekitaldi arrakastatsua izaten da eta, antolatzaileek adierazitakoaren arabera, aurtengo edizioan inoiz baino parte-hartze aktiboagoa izan da.

Lasterketa irailaren 14an egin zen eta 700 lagun inguruk eman zuten izena. Parte-hartzaileek hiru buelta eman ziz-

kioten Ugaldeguren eta Torrelarragoiti industrialdeen artean antolatutako ibilbideari. Era berean, mendi-bizikletan aritzeko zirkuitua ipini zen egun osoan, eta herri-bazkaria eta musika egon ziren.

Bestalde, Zamudioko merkatarien eta zerbitzuen elkarkea jendaurrean aurkeztu zen arrastian, eta Balkoi Apainduen Lehiaketako sariak banatu ziren. Baserriren kategoria Cristina Bilbaok irabazi zuen; eta etxebizitzaren kategoria, Maria Jesús Guerreirok.

**Aislamientos Derio** Tabikeak  
Pladurrezko sabaiak eta apalategiak  
Sabai erregistragarriak  
Isolamendu termiko eta akustikoa  
Aiertza Itxoa plaza, 6 - 48160 Derio  
T: 670 497 928 - F: 944 541 121  
www.aislamientoederio.com

**ADARVE KAFETEGIA**  
Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA  
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

**aldekone**  
hartz klinika  
Tel.: 94 454 15 87  
Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa  
Urbe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)  
-Especialitate guztiak zentro bakar batean  
-Aurrekontua doan  
-Especialitatea: umeak

**Abelino Arraindegia**  
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO  
T: 94 602 75 25-6

**HORTZ - KLINIKA**  
Jasone Azurmendi Garai  
Pakearen Plaza, 1 - 1º A  
DERIO  
Telefonoa: 944 543 705

Albaitaritza  
**HENAR ORTUONDO**  
ALBAITARIA  
Mikel Deuna Plaza  
Tel.: 94 454 28 21  
48160 Derio (Bizkaia)  
LARRIALDIAK: 24 ordu  
Tel.: 94 480 28 84  
abonatuak: 1815



## Erdi Arora itzultzea

Denboran atzera egin eta bufoiek, zaldunek, printzesek, dragoiek eta beste garai bateko merkatariek Derioko kaleak hartu dituzte irailean. Izan ere, bertan bigarren aldiz antolatu da Erdi Aroko azoka. Besteak beste, xaboia eta olio eta belar sendagarriak ipini ziren salgai, egurrezko jostailuak, larrua, zilarra, apaingarriak, gazta, hestebeteak, ogia, gozokiak, haziak... Mokaduren bat hartu eta indarrak berritzeko postuak ere ipini ziren, eta umeei zuzendutako tailerrak antolatu ziren. Horrezaz gainera, Done Jakue bidearen Lagunak elkarteak hartu zuen azokan eta haren kideek bideari buruzko informazioa banatu zuten. Erdi Aroko azoka irailaren 21ean eta 22an egin zen eta asteburu osoan zehar kaleko hainbat ikuskizun antolatu ziren hura girotzeko.



### Sondikako dendak, kalera

Urriaren 13an, Enologia Eguna izango da Sondikan. Goiri plazan ardoari lotutako ekintzak egongo dira 10:00etatik 13:00etara, baina horrezaz gainera, Sondikan bertón merkatarien elkarteak antolatutako outlet bat ere izango da. Besteak beste, hauek ipiniko dituzte salgai: edergintza eta estetikako produktuak, jostailuak eta gozokiak, dietetika eta nutrizioko artikulua, argazkigintzako osagarriak, opariak eta apaingarriak, eta elikadura. Elkartekoek azaldu duten moduan, Sondika herri txikia den arren, beharizan pilo bat betetzen duen merkataritza bat du. Elkarteak kalera atera nahi ditu produktuak, herriarrek jakin dezaten zein den herrian duten eskaintza. "Herriko dendetan erostea da bide bakarra eta ez azalera handietako dendetan, Sondika lohiri ez badugu bihurtu nahi". Euren esanetan, outlet-a formatu interesgarria da: "alde batetik, dendariei stocka berritzeko aukera ematen dielako; eta bestetik, erosleak oso interesgarriak diren beherapenez baliatzen direlako. Herria guztiok gara, zelangoa izatea nahi dugun ere gure esku dago".

**astikenemotor**  
www.ASTIKENEMOTOR.com  
DERIO - 946 451 781

**eleizalde**  
kafetegia  
Lainomendi, 7 48160 DERIO  
(Elizaren aurrean) Tel.: 94 454 52 88

**ELORRIETA**  
INSTALACIONES  
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA  
Urbe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 86  
639 57 98 48 - 639 58 25 47

**Altzari**  
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.  
Zureko lanetan espezialistak  
Alain Pomposo Zarate  
946 740 141 www.altzari.com  
663 209 209 altzari@altzari.com  
Luisene, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

**elekma**  
URRATZETAN BAT OLTZEN ETATREINA ELEKTRIKO BERRIAK  
TELEBISTAK ETA ETXETREINA ELEKTRIKO TOKIAK  
lehenengo markak • Prezioak onak  
BOSCH, SIEMENS, BALAY  
Tocien errobitasun, 25-3.N • 48180 Irujo  
T. 944 539 232  
www.elekma.es

**ZUREGOTTI**  
JATETXEA  
Laura eta elorbidea, 27  
48180 Lolu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
restaurantleuregotti.com

## Derion izandako eraso sexista salatute

Irailaren 16an, goizaldean, hiru gizonen labanaz eraso zioten emakume bati Derion, eta eskuan zauritu zuten. Erasotzaileetarik bat emakumearen bikotea zen. Ertzaintzak hiru gizonak atxilotu zituen. Santzoka herriko elkarteak hurrengo ostegunean elkarretartzera deitu zituen herritarrak, eraso sexista salatzeko. Udaletxe aurrean 50 bat lagun bildu ziren.

## Durangoko jaietarako autobusa

Durangoko jaiak laster izango dira, eta Zamudion autobusa bat ipiniko dute hara joateko eta handik itzultzeko. Autobusa gaueko 9etan eta 11etan irtengo da herritik, eta goizaldeko 5etan eta 7etan itzuliko da. Zerbitzuak euro bat balio izango du eta herrian erroldatuta dauden lagunei dago zuzenduta. Urriaren 11ra arte eman daiteke izena udaletxean edo Gazte estazioan.

## Marimaistra, euskararen aholkularia

Euskararen inguruan sortzen zaizkigun zalantzek eta galderek buruhauste bat baino gehiago ekartzen dizkigute askotan. Eta batzuetan nori galdetu ere ez dakigu. Marimaistrak zalantza horiek guztiak argitzen lagunduko digu. Hiru modu daude berari galderak helarazteko: twitter kontuaren bidez (@mari\_maistra), e-mailez (galdetu@marimaistra.com) eta Whatsapp bidez (668 88 91 92). Marimaistrak zalantzak eta haiei dagozkien argibideak bideo baten batuko ditu astero. Bideoak ikusgai jarriko dira aikor.com webgunean, gainerako toki-hedabideen webguretan, Goiena TBko Magazinean eta marimaistra.com blogean.



## 10 urte literaturan

Larrabetzuko Literatura Eskola orain dela 10 urte sortu zen. "Hezkuntza araututik zein ostantzeko transmisio bideetatik jasotzen ari garen literaturari buruzko edukiek ez gaituztela asetzen aldarrikatu genuen, geuk aukeratu nahi genuela zer eta norengandik ikasi". Urteurrena ospatzeko eta beren ibilbideari jarraipena emateko, eskolaren arduradunek erabaki dute literatura lantzen duten beste talde batzuekin elkartzea. Gonbidapena talde hauei egin diete: Elearazi, 111 Akademia, Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarte, Euskal Idazleen Elkarte, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte, Sareinak eta UEUko Literatura Saila. "Egoera eta erronka berriei aurre egiteko prest agertu dira guzti guztiak eta proiektua martxan da jada". Elkarte bakoitzeko ordezkari batek parte hartuko du Literatura Eskolaren antolatze-lanetan, "baina, jakina, proiektuak aurrera egingo du

lekuan lekuko antolatzaile eta laguntzaileei esker".

Ikasturte osoko matrikulak 20 euro balio du soldatadunentzat; eta 10 euro, soldatarik ez dutenentzat. Izena emateko, mezu bat agindu behar da eskola@literaturaeskola.org helbide elektronikora, eta bertan hauek adierazi: izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. Hala ere, aukera dago matrikula eskola bakoitzeko egiteko. Kasu horretan, soldatadunek bost euro ordaindu beharko dute; eta hiru euro, soldatarik ez dutenek. Dirua 2095 0046 30 9113145842 kontu korrontean sartu behar da. Matrikuletatik biltzen den dirua hizlariari ordaintzeko eta azpiegitura gastuak kitatzeko erabiliko da.

### Informazio gehiago:

eskola@literaturaeskola.org  
www.literaturaeskola.org

## Egitaraua

Literatura eskolako arduradunek egitarau hau prestatu dute 2013-2014 "trukeurterako":

–Ander Lipusen antzerkigintza. Jaime Balberde. Urriaren 19an, Anguleri Larrabetzuko kultur etxean.

–Txinako literatura garaikidea. Maialen Marin. Azaroaren 16an, Sanzenea Zarauzko kultur etxean.

–Amaia Lasaren poesigintza. Josune Muñoz. Abenduaren 14an, Bilboko Alondegian.

–Ramon Saizarbitoria eta iragana. Markos Zapiain. Urtarrilaren 18an, Oreretako Mikelazulon.

–Joseba Sarrionandia: itsasoa da bide bakarra. Otsailaren 16an, Xaia Pausuko ostatuan.

–Harrikoa eta literatura. Martxoaren 15ean, Iruñeko Euskaldunon Biltokian.

–Abangoardiak euskal literaturan. Iñigo Aranbarri. Apirilaren 12an, Durangoko udal liburutegian.

–Euskarara ekarritako poesia. Gerardo Markuleta. Maiatzaren 10ean, Oreretako Mikelazulon.



## Udako argazkia

Altzora Sondikako euskara elkarteak argazki lehiaketa bat antolatu zuen uda baino lehen, oporretan ateratako argazkiak saritzeko. Lehiaketa Nerea Izurietak irabazi du. Nereak "Merienda dibertigarria" izeneko lana aurkeztu zuen lehiaketara. Argazkia Zarautzen atera zuen uztailean. Irabazleak sari hauetariko bat aukeratu ahal izango du: lagun birentzako bazkari bat edo nekazaritza-turismoko establezimendu batean gau bat ematea. Lehiaketaren antolatzaileen esanetan, aurten oso argazki politak bidali dira lehiaketara; besteak beste, Venezian, Afrikan, Portugalen eta Galizian atereak. Lehiaketan 19 lagunek hartu dute parte.

Argazkia: Nerea Izurieta



**LIBRERIA  
SONDIKA  
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

**JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN**

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,  
prentsa, aldizkariak, liburuak,  
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Centro Dental  
**Txorierrri**  
979 473

IMQ  
AEGON

Rocio Astorkia Bordegaray  
Kepa Herguedas Manso  
Maria Conde Bilbao  
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitaina 6, behea - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)  
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - [www.txorierrri.com](http://www.txorierrri.com)



**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia

94 453 25 15  
94 453 39 31

**ASESORÍA**

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1  
Tfn: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

# “Kalean aritzea gustatzen zaigu”

t: Gaizka Eguzkitza / a: Eitb

## Zelan Larrabetzun?

Gezurrezkoak saioa aurkeztu genuen eta oso gustura ibili ginen. Ez da Larrabetzura joan naizen lehenengo aldia eta beti da atsegina. Etxean egotea bezalako da.

## Oso ezberdina da kalean aritzea eta antzokian aritzea? Publikoa ere desberdina izango da, ezta?

Bai, oso desberdina da. Trapu Zaharra taldeak udan baino ez du lanik egiten. Eta gainera kalean egiten dugu. Izugarri gustatzen zaigu. Kalean bertan behera gelditzen dira antzerkiaren ohiko mugak (eszenatokia, txarteldegia, oihala...), eta ikusleekin duzun harremana oso zuzena da, aurrez aurre ikusten dituzulako, hiru metrora. Gainera, kalean ikusten zaituena jaietan dabil, eta beste era batean ikusten du ikuskizuna. Ez zait gaur egun antzokietan dagoen giroa gustatzen. Lehen, ikusleekin eta sustatzaileekin hitz egiten genuen saioa amaitutakoan, baina orain galdu dira freskotasuna eta hurbiltasuna.

## Jendeak ikuskizunean parte-hartzea funtsezkotzat jotzen duzue. Euren edo euren lepotik barre egiten duzue?

Inoiz ez dugu ikusleen lepotik barre egiten. Guk gaur egungo gaiak jorratzen ditugu, errealiteri lotuak, eta jendeari inplikatzeko gonbitea egiten diogu. Zaila da batzuetan, baina lortzen duzunean, ikusleak lotsa galdu eta guk bezain ondo pasatzen du.

## Inprobisazioa ere garrantzitsua da...

Bai, inprobisazioak gatza eta piperra ematen dizkio ikuskizunari, baina ez da hainbesterako. Jazz musikariei gertatzen zaien moduan, guk testuaren % 90 dugu



## SANTI UGALDE | Trapu zaharra taldeko aktorea

*Vaya semanita* telebista saioak ekarri zion ospea, baina hori gertatu baino lehen, Santi Ugaldek bazuen hainbat urtetako ibilaldia antzerkian. Haren taldeak, Trapu Zaharrak, 30 urte daramatza kaleko ikuskizunak egiten, eta haietako bat, *Gezurrezkoak*, Larrabetzuko jaietan izan genuen ikusgai abuztuan.

itxita, baina beti daude tarteak bat-batean aritzeko, lekuaren arabera, ikusle motaren arabera...

## Antiheroiaren pertsonaia askotan erabiltzen duzue. Zergatik?

Galtzaileek atxikimendua sortzen dute. Batzuetan ezintasuna sentitzen

dugu bitzitan gertatzen zaigunaren aurrean. Bitzita zapalgailua bezalako eta ez dizu iritzia adierazteko edo erabakiak hartzeko aukerarik ematen. Umorea erabilia eta ikuspuntu horretatik kontatzen badituzu istorioak, ikusleek bat egiten dute zurekin.

Sabino Arana, 3. lorra - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

tarte pertsonalizatuak  
trufak  
telinak  
pastelak  
pastak

Michal Zurro, 2 - 5. lorra - Sondika, 48150 - 94 665 89 19

Erregabeko ordutegia

Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3 SONDIKA

*“Larrabetzun lan egitea beti da atsegina, etxean egotea bezalakoa da”*

**Euskaraz eta gazteleraz aritzen zarete, ezta?**

Bai, betidanik egin dugu horrela. Euskal Herrian badaude herri erdaldunak eta euskaldunak. Guk saio berberak eraman nahi ditugu leku guztietara, eta horregatik euskaraz zein gazteleraz egingen dugu lan. Taldea bi multzotan dago banatuta: erdalduna eta euskalduna.

**Taldeak 30 urte beteko ditu laster. Zerbait egingo duzue hori ospatzeko? Zertan aldatu zarete?**

Ez. Ez dut uste beharrezkoa denik. Nire urtebetetzea ere ez dut ospatzen. Abuztuan da eta errepidean harrapatzen nau beti. Urteak ospatzeko ohitura galdu dut, ez zaizkit ospakizun handiak gustatzen. Aldaketari dagokionez, argi dago aldatu garela. Gure lehen soldata patatak batzen lortu genuen eta hari esker, antzerki taldea jarri genuen martxan. Denboraren poderioz, behartu gaituzte kultura-industriara sartzera: enpresa sortu, izena eman Gizarte Segurantzari... Aldaketa batzuk zoragarriak izan dira, aktoreoi babesa eta lan egiteko baldintza hobekak ekarri dizkigutelako, esate baterako; beste batzuk, ordea, txarrak izan dira, naturaltasuna eta freskotasuna galdu ditugulako.

**Garai batean zure aurpegia oso ospetsu egin zen, telebistari esker. Hori kaltegarria edo onuragarria izan zen taldearentzat?**

Niri kalte egin zidan kalean lan egiteko. Jendeak uste zuen “Joxepo” *Vaya semanita* saioko pertsonaia izaten jarraitzen nuela eta argazkiak atera nahi zituen

*“Telebistari esker etorri zitzaidan ospeak kalte egin zidan kalean aritzeko”*


nirekin. Ikuskizunaren mamia galtzen zen. Hori zela-eta, urte bi eman nituen kalean lan egin gabe. Egia esan, oso lotsatia naizenez, ez nuen ondo pasatu.

**Oraindik jendeak kaletik “Joxepo” esango dizute. Zelan daramazu hori?**

Jendeak zelan esaten duen eta nik zelako eguna dudan. Gehienetan, hurbiltzen zaizuna jatorra da eta ez du asmo txarrik. Lehen, okerrago pasatzen nuen... Era batean edo bestean, Trapu Zaharra taldeak ez dio aktoreen ospe horri inoiz etekinik atera nahi izan. Ez dugu inoiz egin eta ez dugu inoiz egingo.

**Hain lotsatia izanda, zelan izan zaitezke aktorea, non eta kalean gainera?**

Beharbada terapeutikoa da (kar, kar). Kalean antzeztea errusiar mendia bezalakoa da: sentimenduak gora eta behera doaz eta oso zirraragarria da. Merezi du!



**Consulting Sondika S.L.**

*Sabin Askolizaga*  
Aseguru agentzia  
Allianz  
609 475 746

Milano, 6. beheko  
48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 18 07  
Faxa: 94 453 60 27

# “Itzela da Nashvillen zelan bizi duten musika”

t/a: Gaizka Eguzkitza

## Zelan bururatu zitzaizun nora eta Nashvillera joatea?

Musika ikasi nuen Larrabetzuko Musika Eskolan eta gero nire kabuz gitarra, eta batez ere pianoa, jotzen ikasi dut. Bestalde, Pedagogia amaitu nuenean, gauza bi landu nahi nituen: ingelesa eta musika. Nashville Estatu Batuetan dago eta “musikaren hiria” esaten zaio. Gainera, bertan familia daukat. Beraz, aukera paregabean nuen hara joateko.

## Eta han urte bi daramatzazu...

Hasiera batean lau hilabeterako joan nintzen, baina dagoeneko urte bi daramatzat han... Lau hilabete pasatu eta gero hasten zara hiria ezagutzen, hizkuntza menperatzen, lagunak egiten.... Disfrutatzen hasten zara. Eta horrela egonaldia luzatzen hasi nintzen apurka-apurka, eta gero ezkondu egin nintzen, beraz... (kar, kar). Ez dakit zer egingo dudan etorkizunean. Auskalo!

## AMAIA AGIRRE | musikaria eta hezitzailea

Amaia, 22 urte zituela, Nashvillera joan zen ingelesa ikastera eta hango musika zuzenean dastatzera. Lau hilabeterako joan zen, baina urte bi pasatu dira eta han jarraitzen du larrabetzuarrak. Tarte honetan ezkondu egin da eta Buffalo clover musika taldean hasi da jotzen.

## Zer topatu zenuen Nashvillera ailegatu zinenean?

Hollywood modukoa zen. Dena zen berria eta filmetan hainbat aldiz ikusita nuen bezalaxe: polizia, eskolako autobusa... Benetan, zoragarria izan zen: egun osoan zehar daude musikari ikaragarriak tabernetan (*Honky Tonk* izenekoetan) jotzen eta oso harrera ona egin zidaten.

## Zer da gehien faltan botatzen duzuna?

Pernila (kar, kar)... Ez, nire jendea eta kaleko bizitza, giroa. Estatu Batuetan

beste era batean bizi dira, modu pribatuagoan. Hemen askoz giro politagoa eta zaratsuagoa dago, poteoa esate baterako.

## Eta gehien gustatzen zaizuna?

Zelan bizi duten musika, itzela da. Nashvillen guztiek jotzen dute egun osoan zehar.

## Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Eskola batean egiten dut lan goizean. Arratsaldean klaseak prestatzen ditut eta musikari ekiten diot. Izan ere, Buffalo clover taldean aritzen naiz. Larrabetzu herri





txikia da, baserriz josita, eta neu ere arrantxo batean bizi naiz Nashvillen, senarra eta lagun batekin (biak Buffalo clovereko taldekideak). Bertan animaliak ditugu: oiloak, sugea, txakurrak, perikitoa, dortokak... Herri giroa dago eta alde horretatik, aldaketa nabarmenik ez.

#### **Nolakoa da taldea? Zelan jarri zinen harremanetan eurekin?**

Batez ere rock and rolla jotzen dugu, baina nahasten dugu blues, soul eta horrelakoekin. Hegoaldeko musika da gurea. Taldekide batzuk nire lehengusinarekin lagunak dira eta horrelaxe ezagutu nituen. Nashvillera ailegatu berria nintzela, jai erraldoia egin zuten eta taldearen berri izan nuen. Handik sei hilabetera hartu ninduten taldean. Buffalo cloverekin ibili baino lehen beste blues talde batean egon nintzen.

#### **Kultura ezberdin batetik zatoz. Zail egin zitzaizun taldera egokitzea?**

Ez, egia esan. Betidanik entzun dut eurek jotzen duten musika mota eta Nashvillera, hain zuzen ere, hori zuzenean dastatzera joan nintzen. Hasiera batean, arazoak izan nituen hizkuntzarekin, piperrik ere ez nuelako ulertzen; ez nuen hizkuntzak berak dakarrena: ironia, naturaltasuna... Baina tira, musika hizkuntza unibertsala da. Elkar ezagutu genuen jai horretan ez genuen gure artean hitz egin, baina elkarrekin musika jotzen eman genuen gau osoa. Eta ematen zuen betidanik ezagutzen genuela elkar.

#### **Orain biran egon zarete...**

Bai. Zoragarria izan da. Ez daukat hiztik. Ingalaterran, Bartzelonan eta Euskal Herrian egon gara. Niretzat oso berezia

*“Lau hilabeterako joan nintzen Nashvillera eta dagoeneko urte bi daramatzat bertan”*

*“Hemen, kalean, Estatu Batuetan baino askoz giro politagoa eta zaratatsuagoa dago”*

izan da. Esate baterako, Gernikatik ibili gara. Ama hangoa da, bertan lagun pilo dut eta jaietan beti ibili naiz hortik... Eta Bartzelonan, gauza bera. Urtebete eman nuen Grácia auzoan eta hango jaietan jotzea itzela izan da. Eta publikoaren harreara ere oso ona izan da.

#### **Hezitzailea eta musikaria zara. Bat aukeratu behar izango bazenu, zein hautatuko zenuke?**

Biak. Ezin dut aukeratu. Besoan beti daukat hezkuntzari buruzko libururen bat, eta musikari ere ematen diot denbora pilo bat. Biak dira oso garrantzitsuak nire bizitzan. Eta taldeak izugarriko arrakasta lortuko balu lana uzteko prest egongo nintzateke. Hala ere, ziur nago hezkuntzari buruzko liburuak irakurtzen jarraituko nukeena.



## ERROLDATZEA

Erroldan sartzeko beharrezkoak diren baldintzak azaltzen dira. Derrigorrezko tramitea da, zeinetan bizilekua zein den jasotzen baita, hainbat zerbitzuz baliatu ahal izateko, hala nola eskolatzea, osasuna eta gizarte-zerbitzuak.

## OSASUN-LAGUNTZA

Txorierriko osasun-zentroen gaineko informazioa ematen da: helbidea, telefono zenbakia eta ordutegia. Era berean, informazioa eskaintzen da larrialdietako osasun-laguntzari buruz, farmaziei buruz eta emagin-zerbitzuari buruz.

## GIZARTE-ZERBITZUAK

Non dauden eta bertara jotzeko moduak zeintzuk diren azaltzen da, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak ere: diru-laguntzak, nagusiei lotutako zerbitzuak (mendekotasun-maila baloratzea...), minusbaliotasuna duten lagunak (minusbaliotasuna aintzatestea, aparkatzeko txartela eskatzea...), umeak eta familia (gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea, gurasoentzako eskola...), emakumea (abegietxeak, arreta psikologikoa tratatu txarrak direla-eta...), eta etorkinak (arreta juridikoren zerbitzura bideratzea...).

## EMAKUMEA

Tratu txarrak badaude, jo behar den zerbitzuen telefono zenbakiak.

## ETXEBIZITZA

Informazioa, diru-laguntza publikoen gainean eta zerbitzu hauen gainean: Etxebide, etxebizitza alokairuan edo jabetzan eskuratzeko; Bizilagun, auzokideen artean arazorik badago; Alokabide, akurako etxeak sustatzeko, bereziki etxebizitza sozialak; eta Bizigune, zeinak merkatu libreko etxebizitzak eskuratzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten lagunei errazten baitie hutsik dauden etxebizitzak erabiltzea.

# Zure zerbitzura!

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak baliabide-gidaliburu bat kaleratu du. Egitasmoak Mankomunitatetik zein hura osatzen duten Udaletatik herri-tarrei ematen zaizkien zerbitzuen informazio erabilgarria eskaintzea du helburu. Gidaliburua udaletxeetan kontsultatu daiteke, baita liburutegietan, ikastetxeetan, osasun-zentroetan, gizarte-zerbitzuetan eta Udaletako eta Mankomunitateko webgunetan ere.


Gure herrietan dagoen kultura-aniztasuna kontuan hartuta, gidaliburua euskaraz, gaztelaniaz, arabieraz eta errumanieraz argitaratu da, horiek baitira Txorierri gehien erabiltzen diren hizkuntzak. Orrialdeotan gidaliburua osatzen duten edukiak azalduko dizkizuegu.

## ENPLEGUA

Lana bilatzeko dauden zerbitzuen gaineko informazioa, eta horien telefono zenbakiak eta helbidea azaltzen dira: Egaz Txorierri eta Lanbidea. Sindikatuei eta etxeko langileen elkarteari buruzko informazioa ere eskaintzen da.

## KONTSULETXEAK

Txorierritik hurbil dauden kontsuletxeei buruzko informazioa: Europako kontsulatuak, Amerikakoak, Afrikakoak eta Asiakoak.







## HEZKUNTZA

**Adingabekoei zuzenduta:** gidaliburuan, Txorierrin dauden hezkuntza-mailak eta eredu linguistikoak batu dira, baita ikastetxe publikoak, pribatu-itonpeko ikastetxeak eta kooperatibak ere.

**Nagusiei zuzenduta:** hezkuntza formala bukatu ez zutenentzako, edo hura amaitu eta beren burua birziklatu nahi dutenentzako, heziketa. DBHko titulua lortzea.

**Euskara:** Udal euskaltegia eta AEK.

**Berbalagun:** euskaraz aritzea helburu duen programa. Euskara ama hizkuntzatzen duten lagunei zein euskara ikasten dabilzan lagunei dago zuzenduta.



a: Javi Atxa (ST3 Elkarte)

## INTERNET

KZguneei buruzko informazioa, horien helbidea eta ordutegia. Zentro horietan doan ikasten da interneten nabigatzen, eta sarean nabigatu ere egin daiteke bertan.

## HERRITARREN SEGURTASUNA

**Udaltzaingoa:** udalerrri bakoitzean herritarren segurtasunaz arduratzen dira eta Udalen menpe daude.

**Ertzaintza:** Eusko Jaurlaritzaren menpe dago eta eskuduntzak dituzte arlo hauetan: ordena publikoa, herritarren segurtasuna, trafikoa, ikerkuntza, polizia judiziala...

Gidaliburuan, polizia bien gaineko informazioa eta telefonoak sartu dira, baita larrialdietako telefonoak ere.

## ESKU-HARTZE KOMUNITARIOKO ZERBITZUA

Osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea sustatzen du. Horretarako, doako ikastaroak antolatzen ditu: erretzeari uztea, drogamenpeketasunen prebentzioa, gazteei zuzendutako heziketa sexu-afektiboa...

## GAZTE-INFORMAZIO BULEGOA

Gazteentzat interesgarriak diren hainbat gairi buruzko informazioa ematen du. Txartelak ere ematen dira bertan: ikasle-txartela, aterpe-kide-txartela...

## ETORKINEN EGOERA ADMINISTRATIBOA

Gidaliburuan, baimenak lortzeko beharrezkoak diren baldintzei buruzko informazioa batu da: bizileku-baimena, lan baimena eta egonaldi-baimena. Era berean, horien gaineko informazioa eskaintzen da: atzerritarren bulegoa, bisak, Espainiako nazionalitatea, asiloa eta babesa.

## KULTURA

Kulturari lotutako instalazioak eta zerbitzuak: udal liburutegiak, ludotekak (umeei zuzendutako aisialdirako guneak) eta gaztegunak (gazteei zuzendutako aisialdirako guneak).

## KIROLA

Informazio interesgarria udal kiroldegien gainean, futbol-zelaiaren gainean, frontoien gainean eta kirol pisten gainean.

**IKASTAROA**  
**DROGEN KONTSUMOARI LOTUTAKO**  
**ARRISKUAK NOLA MURRIZTU**

**NON:** DERIOKO KULTUR BIRIKAN

**NOIZ:** URRIAREN 16AN ETA 17AN 18:00ETATIK 21:00ETARA

**NORENTZAT:** GAZTEEKIN LAN EGITEN DUTENENTZAT, AIZIALDI, GAZTELEKU ETA KIROL BEGIRALEENTZAT, GIZARTE HEZITZAILLEENTZAT, GIZARTE LANGILEENTZAT ETA HOSTALARITZA LANGILEENTZAT.

**IZEN-EMATEA:** URRIAREN 14 RA ARTE TXORIERRIKO MANKOMUNITATEAN (94.454.03.50) EDO DERIOKO KULTUR BIRIKAN (94.465.97.14).

**DOHAINIK**

**ERRETZEARI UZTEKO**  
**IKASTAROA**

**NON:** DERIOKO KULTUR BIRIKAN

**NOIZ:** ASTELEHENERO, URRIAREN 14TIK ABENDUAREN 2RA 20:00ETATIK 21:00ETARA

**NORENTZAT:** TXORIERRIN ERROLDATUTAKOENTZAT


**IZEN-EMATEA:** URRIAREN 11RA ARTE EDOZEIN UDALETXETAN, TXORIERRIKO MANKOMUNITATEAN EDO DERIOKO KULTUR BIRIKAN.

**DOHAINIK**

# “Ez dago umeak hezteko testuinguru idealik”

FERNANDO OLABARRIETA | psikologoa

Zorritzetan euskera alkarteko kidea, Aikor! aldizkariaren kolaboratzailea, Ekidazu abesbatzaren kidea... Fernando Olabarrieta ezaguna da Txorierriko euskalgintzan. Baina horrezaz aparte, lezamarra psikologoa be bada, eta aditua da familia eta hezkuntza arloetan. Irakaslea da EHU eta ikastalditxoak emon deusku.



t/a: Gaizka Eguzkitza

### Batzuetan emoten dau psikologiak ospe handirik ez daukala. Ados zagoz?

Bai, jente askok pentsaten dau gauzak asmau egiten doguzala... Baina ez da egia, eta zorionez aurrerexi hori aldatzen ari da. Gaur egun psikologia zientzia bat da, baina gaztea: ikerketak 1910ean hasi ziran. Guk zerbait dakigu, oso gitxi oraindino, baina apurka-apurka gero eta gehiago jakingo dogu. Eta dakiguna gizarteari helarazo behar deusagu; bestela, gure beharrak ez dau sentidurik. Bestalde, beste arazo bat dogu: Psikologian, beste zientzietan gertatzen ez dan legez, objektua subjektua da. Hor dago kontraesana, subjektu bakotxa ezbardina dalako. Eta egin geinken gauza bakarra gure arteko interakzioak aztertzea da, eta metodo zientifikoa erabilita, gainera. Hor dago erronka. Metodo zientifikoa landu behar dogu gizartea hobeto ezagutzeko.

### Gaur egun ikerlaria eta irakaslea zara Euskal Herriko Unibersidadean...

Jenteak uste dau unibersidadeko irakasleok eskolak baino ez doguzala emo-

*“Psikologook dakiguna  
gizarteari helarazo  
behar deusagu;  
bestela, gure lanak ez  
dau sentidurik”*

ten, baina horrezaz aparte ikertzea be bada geure zeregina. Eta holantxe izan behar da. Niri biak gustetan jataz. Biak dira osagarriak. Ikertzeak ez dauka sentidurik emaitza hedatzen ez badozu. Batzuk aldizkarietan plazaratzen dabe, baina nire ustez, askoz politagoa da ikasleei helarazotea. Harremana zuzenagoa da, eta eurei ziria sartzea izugarria da. Eta baten batek familiako psikologiaren eremuan arituko balitz, zoragarria izango litzateke. Ikasleek freskotasuna ekarten dabe, gizartearen espilurik onena dira. Nik pilo bat ikasten dot eurakaz; nik ez dot irakasten, ikasi baino. Ikertzeari jagokonez, niri betidanik gustau jataz ikastea eta irakurtzea. Beraz, pozik.

### Hezi taldeko kidea be bazara. Zer da Hezi?

Hasiera baten Etxadi taldea sortu genduan, baina gaur egun Hezi gara (hitz-jokoa hazi eta hezi hitzen artean). Konturatu ginan gurasoek zalantza pilo bat zituela hezkuntzari buruz. Antxinako erreferenteak galdu egin dira eta batzuk apur bat galduta agertzen dira: lehen amari, amamari edo herrietan medikuari edo abadeari galdetzen jaken. Gaur egun, informazio asko dago Interneten eta hainbat aldizkarik eta liburuk umeen hezkuntza jorratzen dabe. Hutsune hori betetako, bada, gure plataforma jarri genduan martxan, familientzako orientazio psikologikoko zerbitzua. Hau da, edozeinek galdetu ahal deuskuz sortzen jakozan zalantzak. Zerbitzu barrizaillea da. Inglaterra eta Estatu Batuetan horrelako bateren bat egon badago, baina bestela, nekez dago gurea bezalakorik.

### Zertan datza zerbitzuak?

Zerbitzua eroso eta doanekoa da. Kontsultak posta elektronikoz, telefonoz edo zuzenean egin leitekez. Guk anonimatu bermatzen dogu. Gainera, oso

**aek**  
**Euskara praktikoa**  
Txorierriko AEK

**aek** | Garena ikasteko  
para entendemos  
pour se comprendre

www.aek.org  
902 362 294

**ANIMA ZAITEZ  
EUSKARA IKASTERA!!!**

herrian bertan ikasteko  
aukera daukazu

Informazioa:  
Tfnoa: 94 454 39 67 / 607598794  
txepetxa@aec.org

*“Ez da erraza umea heztea. Zer egin behar da jakin badakigu, baina ez dakigu zelan”*

*“Umeak pediatarrenera joaten diran moduan, familiako psikologoa bisitatea gustauko litxakigu”*

pertsonalizaua da, kasuz kasu lan egiten dogulako. Horren haritik, gida plazaratu-ko dogu, Gurasotasun curriculum optimoa izenagaz. Eta bertan jarraibide batzuk eskiniko doguz. Esate baterako, umea ez da gehiegi babestu behar; bestela, tratu txar sofistika bat da, gizartean bizitzeko tresna egokiak emoten ez deusaguzalako. Beste adibide bat: autoestimua sustatu behar da, baina era egokian; bestela, egoa sustatuko deusagu bere kalterako. Ez da erraza umea heztea. Zer egin behar da jakin badakigu, baina ez dakigu zelan. Horretarako gagoz gu.

**Heazi hainbat erakunde publiko-gaz batera egiten dau behar. Zergaitik ez Txorierrin? Beharrezkoa izango litzateke?**

Nire ustez, bai. Hasiera baten, proiektua martxan jarri genduan proposatu geuntsen, baina eurek ez eben horretan sartu gura izan. Antza danez, gizona, santua izateko, herriz aldatu behar da... (kar, kar). Dana dala, hainbat erakunde, udal-tertxe eta mankomunidadegaz gagoz hartu-emonetan: Bilbo, Portugalete, Lea-Artibai, Haurreskolen Partzuergoa, Eusko Jaurlaritzara...

**Zelango kontsultak jasotzen do-  
zuez?**

Danetarik. Guk adinaka egiten doguz multzoak: 0-2 urte; 2-6 urte; 6-12 urte; eta 12-18 urte. Galdera gehienak lehenengo multzoari jagokozanak dira, normala dan moduan. Izan be, haurrak jaiobarriak diranean sortzen dira zalantza gehienak: jatorduak, lo egiteko orduak, esfinterren



## Bretaña-Salamanca-EHU

Txikitan, Frantzian, etorri jakon Fernandori psikologiarako zaletasuna. “Txikitan frantsesa ikasten neban eta Bretaniako neska bategaz alkartrukea egin genduan: udan hona etorri zan bera, eta ni hara joan nintzan. Bertan nengoala, neska horren lagun batek psikologia ikasi gura eban, eta berak sartu eustan psikologia ikaste-ko gogoia”. Fernandok liburuak irakurtzen hasi zan bere kabuz, baina behin betiko bultzadea Enrique Freijok emon eutsan. “Salamancako Universidad Pontificiako Psikologia Fakultateko dekanoa zan eta nire ikastetxera, Seminaria, hitzaldiak emotera etortzen zan”.

Enrique oso persona garrantzitsua izan zan Fernandorentzat. Izan be, beranduago, bere maisua eta laguna izan zan, baita Euskal Herriko Unibersidadean (EHU) sartu ebana eta tesia zuzendu eutsana be. Eta beragaitik joan zen lezamarra Salamancara Psikologia ikastera. “Gurasoek oso ahalegin handia egin eben nik ikasten jarraitu ahal izateko eta, 16

urte nebazala, gurasoek Salamancako pentsino baten itxi ninduen. Garai hatan ikasle onak ginanok ikastaroak aurreratzen genduzan. Hasiera baten oso gogorra izan zan, baina gaur egun nire urterik onenak izan zirala esan neike”.

### Herrimina

Gutzira bost urte emon eban Fernandok Salamancan. Hogeta bat urte zituala, 1979an, karrera bukatuta eban eta etxera itzultzea erabagi eban. “Gogoia baino, beharrezana zan niretzat. Euskal Herria nire herria da eta bertan dodaz sustriaik. Garai hatan, psikologok kabinetek sortzen genduzan eta horixe egin neban lagun batzukaz. Elkar kabinetek eratu genduan Bilbon, eta batez be umeen arazoak jorrotzen genduzan. Bertan 12 urte emon nebazan. Gainera, Igoerreko eskolako guraso alkarreak kontratau ninduen han aritzeko. Oso esperientzia polita eta barrizaillea izan zan”.

Halanda be, Fernandok lan horrek bertan behera itxi behar izan zituan 1989an, EHU sartu zanean. Bertan garapenaren eta hezkuntzaren psikologia arloko irakaslea da, eta gai horreek dira bere ikerketa lerro aitagarrienak: buru-moldeak; famili testuingurua eta garapen psikologia; eta nortasun kulturala. 2007an doktoradutza bukatu eban.

*“16 urte nebala,  
Salamancara joan  
nintzan Psikologia  
ikastera”*

kontrolari buruzko galderak, ordezkotzaintza nortzuek egin behar daben... Nebazaroari buruzko kontsultak be jasotzen doguz. Galderak ailegaten jakuz arazoa gertatu danean; halanda be, guri gustauko litxakigu arazoa gertatu baino lehen galdetzea. Gure zerbitzua aringarria izan beharrean, prebentiboa izatea gustauko litxakigu. Baina gatxa da. Eta tira, bateren bati laguntza emoten badeutsagu, gu, pozik. Gurasoak pediatrarenera joaten diran bezalaxe, familiako psikologoarenera joatea gustauko litxakigu. Hori da gure azken helburua.

**Asko aldatu dira umeak denporean poderioz? Eta gurasoak?**

Bai, pilo bat. Gurasoak oso zorrotzak ziran diktaduran seme-alabakaz; demokrazia etorri zanean, aldiz, askatasun

gehiegi emoten eutsien. Gaur egun, gurasoen rola aldatzen ari dira. Batzuetan, gurasoek besteen eskuetan ixten ditue hareei jagokezan ardurak, umearen kalterako... Euskal Herrian nahiko ondo egiten dira gauzak, baina hezkuntza zaindu egin behar da, eta horretarako ezagutza eta hori praktikan jarteko tresnak emon behar jakiez gurasoei. Gehienok gara umeak eukiteko gai, baina sistema ez dabil behar bezala eta kirrinka egiten dau: bullying-a (erasoak eskoletan), bortizkeria famulietan...

**Gehiegi kezkatzen dira gaur egungo gurasoak? Ala gitxiegi?**

Kezkatu, kezkatu egiten dira eta hori ona da. Arazoa da zeintzuk diran kezkak: batzuetan gauza inportanteak baztertu egiten dira eta tontakeriei, ostera,

garrantzi handiegia emoten deusie. Gizartea nahiko gainazalekoa da. Esate baterako, jentea eskolaz kezkatzen da, baina ez dira kontuan hartzen umeen lagunak. Gaur egun, milioika liburu eta webgune dagoz hezkuntzari buruz. Kopuru handi horrek adierazoten dau gauzak ondo egiteko ardurea egon bada-goala.

**Zein da testuingururik onena umeak hezteko? Aholku orokorrik emon ahal da?**

Ezinezkoa da testuinguru ideala eukitea, eta hori bilatzea ohiko akatsa da. Egokitu egin behar zara, besterik ez. Testuinguru naturalean hazi eta hezi behar da. Horren haritik, Europako Batzordeak adierazo eban gurasotasuna oso garrantzitsua zala, eta lege baten aitatu eban. Espresuki esatea oso garrantzitsua da, nahiz eta gero herrialde bakotxak gura dauena egin.

**Aitak eta amak etxetik kanpo egin behar dabe lan, eta askotan aitite-amamek hartzen dabe umea jagoteko ardurea. Eraginik euki dau horrek umeen heziketan?**

Zelan egiten danaren arabera. Sistemak derrigortzen gaitu kanpoan behar egitera, eta ordezkoren bat bilatu behar da. Gure ustez, familia da onena: aitite, amama, izekoa... Umeak lotura emozionalak garatuko ditu persona horregaz. Ordezko zaindaria kalidadezkoa eta egonkorra izan behar da.

**Heziketa, eskolan ala etxean?**

Etxean, duda barik. Etxean hasten da hezkuntza eta gero eskolan jarraitu behar da. Bestela, ardura besteen eskuetan delegatuko dogu. Juan Luis Goikoetxeak hau kontau eustan: pediatra baten kontsultan ama batek galdetu eutson medikuari: "Aizu, noiz irakatsiko deusazu mutilari ibiltzen". Horrelakoak harrigarriak iruditzen jataz.

*"Gaur egungo gurasoak umez kezkatu egiten dira eta hori ona da. Arazoa da zeintzuk diran kezkak"*



# “Itxura ona hartzen ari da kontua”

t: Itxaso Marina / a: Gaizka Peñafiel

ASIER VICARIO | Kartzarot taldearen abeslaria

**Martxoan, Kurutze auzoan egin zan Bierfest jaialdian kontzertu txiki bat emon arren, esan geinke hau 14 urteren ostean eszenatoki batera igon zarien lehenengo aldia izan dala. Zelan joan zan?**

Oso gustura egon ginan eta neuk behintzat ez neban inoren falta igarri. Gainera, batetik, neroian arantza atera ahal izan dot, izan be, seme-alabei askotan kontau deutesdaz gaztetako abenturak eta kontzertuari esker abentura horreek zelangoak izan ziren ezagutzeko aukera euki dabe, eta bestetik, jotako abesti guztiak gureak dira, eta, denpora luzearen ostean, abestiok berreskuratzea oso atsegingarria izan da.

**Zelango publikoagaz topau zinien?**

Lagunak eta jarraileak etorri ziran, eta hareen seme-alabak. Gazte askok baekiezan gure abestiak, eta horrek zerbait esan gura dau: 20 urte beranduago gure abestiak entzun dabezala, etxean edo beste inon.

**Eta zelango musikariakaz?**

Ba, ezuste atsegina izan da, geure burua lehen baino hobeto ikusi dogulako. Musika-ekipo ona euki genduan, baina esan behar da teknikoki geu be askoz hobeto gagozala. Baxu-jotzaile eta bateria jotzaile barriak izateak be lagundu deusku, oso musikari onak diralako.

**Taldekide barriak beste banda batzuetan be badabilz. Jatorrizko kideoi jagotzuenez, zelango harremana euki dozue denpora honetan musikeagaz?**

Javik gehiago konposau dau jo baino; eta Robertok jotzen jarraitu dau, beste talde bat dauelako. Niri jagokidanez, lagun artean baino ez dot abestu, badakizue, afarrietan-eta.

Kartzarot hard rock taldea 1999. urtean desagertu zan, 10 urteko ibilpidea egin ostean. Aurten barriro batu dira eta kontzertu zoragarri bat eskini dabe Lezamako jaietan. Musikariek zein publikoak eukin onena emon eben. Asierregaz egin dogu berba iragana, oraina eta etorkizunaren gainean.

**Beraz, mikrofona barriro hartu behar izan danean...**

Ba, ez jat kostau. Uste dot izan dala orain badakidalako noraino ailegau ahal nazen eta esperimeturik ez dodalako egiten. Hau da, orain burua ahotsa baino hobeto dodalako.

**Lezamako kontzertuari barriro ekinenez, ezuste politik izan ziran.**

*Kartzarot eta Maritxu nora zoaz?* abestiaren bersinoa gure kanturik arrakastatsuenetariok izan dira, eta lehenengoa abestu genduan gogora ekarri genduzan gure artean dagoeneko ez dago-

zanan, baina badagozanak be: euren seme-alabak, lagunak... Eta *Maritxu nora zoaz?* Ekidazu abesbatzagaz batera abestu genduan.

**Hiru alderdi gertatu dira aldi berean, Kartzarot berragertzeko.**

Alde batetik, diskoetxe batek gure maketa biak argitaratu ditu CD baten; eta bestetik, Kurutze auzoko kontzertuak gogo biztu euskun, bai taldekideoi, bai jenteari. Horrezaz gainera, aurten 20 urte bete dira Lezaman kontzertu bat grabatu genduala. Garai hatan, une gorenean gengoan talde moduan... Oso dibertigarria eta polita izan da niretzat hain garrantzitsuak izan diran lagunakaz barriro batzea eta gure abestiak kantatea.

**Beste garai batekoak?**

Ba, soldadutzaren gainean berba egiten dauen abesti bat izan ezik, beste guztiek edo gehienek gaurkotasuna dabela esango neuke: langabezia, presoan egoera... *Ume gaixoak* abestiak, esate baterako, Bosniako gerraren gainean egiten dau

*“Oso dibertigarria izan da taldekideakaz barriro batzea, eta gure abestiak kantatea”*

*“Transmitidutea lortzen badogu, posible izango da lekua eukitea”*





berba, baita Somaliako umeen gainean be. Bosniakoa aspaldian izan zan, baina begiratu zer gertatzen ari dan orain Sirian... Gainera, bitxikeria bat be kontau daiket: orain dala 20 urte, abestia konposau nebanean, Médicos sin fronteras GKE Somaliara joan zan, eta orain dala egun gitxi bertatik atera behar izan dira, segurtasun-arazoak dirala-eta.

#### **Zelan gogoratzen dira “ule luzearen” garaiak?**

Garai politak ziran. Tabernarik taberna joan behar izaten ginan, furgonetaz, nortzuk ginan azaltzen eta gure maketak bertan ixten. Ez egoan sakelako telefonorik, ezta internet be, eta amaren telefonoren zenbakia emon behar izaten geuntsen tabernariei... Maketa bat grabetako, esfortzu ekonomiko handia egin behar zan, baina saltzen zan... Guk lehenengo maketaren 1.000 ale saldu genduzan; eta bigarrenaren 2.000 ale. Orain errazagoa da maketa bat grabetea, baina gatxagoa saltzea, jenteak ez dauelako musikarik erosten, deskargau egiten dau.

**Leku batetik bestera ibilteko beharra egoan, baina diskoetxe batek gauzak beste era baten egiteko aukerea emon eutsuen: disko bat grabau eta haren promozioa egin. Taldea ixtea erabagi zenduan zuk.**

Garai hatan, nire bizitzea beste bide batetik zihoan eta ez neban konpromiso hori hartu gura. Era berean, aspertuta nengoan eroaten genduan erritmoagaz... Taldeak pare bat urte gehiago jarraitu eban eta azkenean desagertu egin zan.

#### **Gelditzeko bueltau da Kartzarot?**

Hasiera baten, ez neban inongo abenturatan sartzeko gogorik, baina proiektu pertsonalak bideratuta dodazala kontuan hartuta eta hain ondo pasaten dogula ikusita... Gogotsu gabilz eta era-



bagi dogu grabau barik lotu ziren abestiak behintzat grabauko doguzala. Beste batzuk be badoguz erdi konposauta, eta seguru nago disko bat aterako dogula... Egia esan, ez neban uste hau Lezamako kontzertutik baino harago joango zanik, baina beste kontzertu batzuk atera jakuz eta musika-agente bat be badogu ate joka. Ez dakit, itxura ona hartu dau kontuak.

#### **Lekurik topauko dau?**

Ez dakit, nik lurrera bajatu gura dot, Lezamakoa itzela izan zalako. Baina jakin badakit une konkretu baten gertatu zala, jentea gogoagaz ebilelako. Beraz, ez dakit zer gertatuko dan hurrengo kontzertuan... Gure musikeagaz eta mezuagaz transmitidutea lortzen badogu, posible izango da. Kartzarot proiektu zintzoa da, barru barrutik ateraten dana. Ez dogu asmo handirik. Ondo pasetea eta konposetea baino ez dogu gura.



## Euskal cowboy-a

Irailean, Western Txapelketea egin da Zaldibarren eta Aitor Madariaga sondikoztarra lehenengoa lotu da bertan, *Cattle Penning* kategorian. Aitor Euskal Western alkartearen partaidea da. Orain dala urte bi hasi zan Mendebalde Urruneko cowboy-en diziplina praktikaten.

t: Itxaso Marina / a: I.M. eta A. M.

Sondikoztarrak sorpresaz hartu dau gure deia, westerna Euskal Herrian oso kirol ezaguna ez dalako, "eta ez nekialako jenteak nire zaletasunaren barri ebanik". Baina gatxa da gordetea herrian benetako cowboy bat dagoala; eta gatxagoa horrek txapelketak irabazten baditu.

Aitor beti egon da lotuta zaldi munduari. "Katalunian ikusi genduan western diziplinako proba bat lehenengo aldiz. Dibertigarria iruditu jatan eta erakarri egin ninduen. Orain dala urte bi federau nintzan eta aurten hasi naz txapelketetan parte hartzen". Sondikoztarra *Cattle Penning* eta *Team Penning* kategorietan ibiltzen da. "*Cattle Penning*-a banakako kategoria da; eta *Team Penning*-a taldeka-

ko kategoria. Azken honi jagokonez, bigarrenak lotu ginan Bidanian, Gipuzkoan, egin zan txapelketan".

Entrenametuak beste lagun bigaz egiten ditu, horreetako batek, Josuk, Luroeta auzoan dauen baserriko lurretan. Egia esan, hiru zaldikoak abeltzainak dira eta hori lagungarria da, euren zaletasuna praktiketako lekua eta buruak badituela. Western diziplina zer dan azaltzeko, artzain txakurrek eta artzainek egiten daben beharragaz konparau geinkala esan daiteke. "Behiak mobiarazo eta eskorta baten sartu behar dira. Hori zaldiaz egiten dogu. Zaldiri gure gorputzaren mobimentuen bidez esaten deusagu zer egin behar dauen, animaliarene gorputzaren leku baten edo bestean ikutu txikiak emonez... Gatxa da, behiaren erantzuna-

### Azalpen txiki bat

Gure herri kirolakaz gertatu dan moduan, westerna kirol bihurtu dan antxinako behar bat da. Estatu Batuetako cowboy-ek milaka buruk osatutako taldeak zaintzen ebezan eta handik buru bat atera behar ebenean, zaldiaz egiten eben, lakioagaz egitea ezinezkoa zalako. Ikuskizunak indar handia hartu dau eta dirutza handia mugiten dau urtero.

ren menpe zagozalako, baina oso dibertigarria be bada". Udan, egunero lotzen dira entrenetako; neguan, domeketan.

Aitorrek bere lagun baten zaldiaz hartzen dau parte txapelketetan, Jokinen zaldiaz hain zuzen be. "Euskal Herri mailako probetara joaten gara. Izan be, negozioa dogu eta kanpora aterateak dendea itxi behar izatea ekarten dau". Azaldu deuskun moduan, txapelketetan hiru proba egin behar ditue, epaileak agintzen



## “Ezin gara Estatu Batuetako cowboy-akaz lehiatu, jakina. Horreen behiak be askoz azkarragoak dira”

dauenari jarraituz. “Proba bakoetak bere arauak edo baldintzak ditu. Adibidez, behi guztiek zenbaki bat dabe. Epailak zenbaki bat esaten dau eta guk zenbaki hori dauen behia, edo daben behiak, eroan behar doguz eskortara... Korapilatsua da batzuetan”. Aitorrek *cuarto de milla* amerikar arrazako zaldia erabilten dau, “zaldirik onena dalako diziplina honetarako. *Apaloosa* eta *paint* arrazetako zaldiak be erabilten dira”.

Epailak batez be honeek hartzen ditue kontuan: zaldia ez zigortzea, zaldiak behie koska ez egitea, zaldiak hesiak ez ikutzea... eta, nahiz eta inportantzia gitxi-koa iruditu, arropea be bai. “Galtza bakeroak jantzi behar dira, eta gura izanez gero, narruzko hankak. Kapelea be eroan behar da, unai-botak –gura izan ezker, ezproiak be jantzi daitezke-, eta alkondarak mauka luzeak euki behar ditu, eta ondo lotuta egon. Osterantzean, zigorra jaso daiteke”.

Sondikoztarraren esanetan, Euskal Herriko zaldikoen maila ona da, onargarria. “Baina, jakina, ezin gara Estatu Batuetako cowboy-akaz lehiatu. Horreek dana dabe hobea... Behiak be askoz azkarragoak dira (kar, kar)”. Inoz Estatu Batuetara joatea gustauko litxakio, halako espektakulo bat ikustera.

### Zaletasun garestia

Lehiaketan ostein, jai txiki bat egin ohi da, cowboy-ei lotutako ekintzak eta musikea dituana. Baina ezin izan da Zaldibarren antolatu; ez dago azalpen askorik emon behar, krisian gagoz. “Dana dala, pozik egon behar gara, bertako Udalak lehiaketea antolatzeko lurra itxi deuskulako, hesiak jarten be lagundu deusku...”. Lehiaketea Euskal Western alkarteak antolatu eban. Irabazi asmorik bako alkarteak da eta 50 bat lagunek osatzen dabe; Aitor, euren tartean. “Garestia da halako lehiaketa bat prestetea. Behiak abeltzain batek ipinten ditu eta 1.300 euro inguru ordain-



tzen jako animaliak guri ixtegaitik. Horrez gainera, futbol-zelai baten neurrietako gunea atondu behar da, probak bertan egiteko, eta hesiz betetako kamioi bi

behar dira... Ganaduentzako gelak edo tokiak be ipini behar dira, eta txapelketak egun biko iraupena badau, boxak atondu behar dira, zaldiek bertan lo egiteko... Eta, lehenengo postuetan lotzen diranei plaka bana emoten jake. Alkartearen bazkideen kuotakaz eta izena emotek balio dauenagaz abeltzainari ordaintzeko ailegaten jaku”.

Parte-hartzailearentzat be bada zale-tasun garestia. “Zaldia eroateko atoa euki behar da, baimenak... eta zaltokia amerikarra izan behar da. Lehiaketetan parte hartzeak dakarren gastua be hartu behar da kontuan...”. Aitorrek Madril, Katalunia eta Aragoiko parte-hartzaileen falta igarri dau Zaldibarren. “Krisiaren eragina izan dala uste dot”. Txapelketan 30 zaldiko ibili dira eta horreetako hiru emakumezkoak izan dira.

Western kirol gutxiengoduna da: gitxi praktikauten dabe eta ikusle gitxi daukaz. “Baina nik uste dot jenteari gustau lekiola”. Berak zaletasuntzat dau, eta, denporak eta lanak ixten badabe, praktikaten jarraituko dau. “Badakizue, gogoko tokian aldaparik ez!”



Uintzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net  
48160 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



### BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizatua

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Ekolizpenaren Programazioa
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola

# Solidaridadearen jantokia

Komunikabideetan gero eta ohikoagoa da seme-alabei jaten emoteko nahikoa baliabiderik ez daben familien inguruan entzutea; umeez egunean otordu egoki bat egiteko, udan be zabalik egon behar diran eskolen inguruan; auzokideek oinarrizko beharizanak beteta izateko, herrietan martxan jarten diran ekimenean inguruan... Bateren batek pentsau leuke horrelakoak beste herriren batzuetan gertatzen dirala, baina halako egoerak Txorierrin bertan be izaten dira.

t/a: Itxaso Marina

Irailaren 2an jantoki sozial bat zabaldu zan Derion, Larrabarri baserrian. Begoña Bilbao hango Udaleko Gizarte Ongizate eta Osasun Arloko zinegotzi ordezkaria da eta, azaldu deuskun moduan, aspalditik ibili dira kezkatuta murgilduta gagozan krisi ekonomiko sakonak herriko familiengan, eta batez be umeengan, dauen eraginaz. Gizarte-laguntzaileak emondako datuek eta informazioak indartu zituen susmoak eta bildurrak. "Eskolara ondo jan barik joaten ziran umeak baegozala komentau zan. Familia horreei zelan lagundu geunskien aztertzen hasi ginan eta pentsau genduan aste barruan gitxienez bazkariagaz laguntzen bajaken, gero, asteburuan, baliabide gehiago eukiko leukiela otorduak behar moduan-edo egiteko". Aukerak aztertu eta egokiena jantoki sozial bat martxan jartea zala atera zan ondorio moduan. Hainbat izapide burokratiko eta baldintza bete ostean, ekimen solidario honek irailan zabaldu ditu atek.

Lehen esan dogun lez, jantoki soziala Larrabarri baserrian dago, sukaldaritza tailerra egiten dan aretoan hain zuzen be. Instalazioa eguerdiko ordu-batetik arratsaldeko hiruretara arte dago zabalik, astelehenetik barikura, eta egunero batez beste 20 lagun emoten jake bazkaria bertan. "Zerbitzuaz baliau ahal izateko, lehenengo eta behin gizarte-laguntzailearengana jo behar da. Berak balorauko ditu familia edo lagun bakoxtaren premiak eta, egokia baderitxo, jantokira aginduko ditu". Halan, gizarte-laguntzaileak zerrenda bat osatzen dau jantokiaren langileei emoteko, eta han zerbitzua erabiliko daben lagunena izena azaltzen da. "Dana dala, zerrendan ez dagoan bateren



*Jantokia Larrabarri baserrian kokatu da, eta 13:00etatik 15:00etara dago zabalik, astelehenetik barikura*

bat jantokira hurbiltzen bada, ez zaio bazkaria ukatuko, jakina".

Jantokiaren erabiltzaileak diru-sarrerak bermatzeko errentea jasoten daben eta baztertuak izateko arriskuan dagozan lagunak dira. Gehienak familiak dira, guraso gazteak eta euren seme-alabak, eta gehienak euskal herritarak dira, kontrako pentsau leiteken arren. "Zerbitzuak

apur bat arintzen dau euren egoerea. Behintzat otordu egoki bat egin ahal dabe egunean, eta seme-alaben oinarrizko nutrizio-beharizanak bete. Gainera, aste barruko bazkariak kezkatu behar ez izateak aukerea emoten deutse asteburuan otordu egokiagoak egin ahal izateko".

## Beharizanak aztertu

Derioko Udalak catering-enpresa bat kontratau dau jantokia kudeatu daian. Enpresak menu ezbardin bat egiten dau egunero eta anoak termoetan eroaten ditue jantokira. Menu konpletoak dira, lehenengo platerak, bigarren platerak, postreak eta ogiak osatzen dituenak. Janaria Rebecak eta Soniak banatzen dabe, zeinak bertako langileak izateaz gainera, jantokiaren erabiltzaileak be bai-

## Abesten

Lauren bat faltaten da ordu-baterako eta Rebeca eta Sonia jantokiko atetik sartu dira. Behar-uniformea jantzi dabe eta mahaiak prestaten hasi dira. Mahai-zapiak ipini ditue, ahozapiak, mahai-tresnak eta edalontziak; eta ogi-zatiak saskitxuetan jarri ditue. Pitxer batzuk uraz bete dabez eta horreek be mahaietan ipini ditue. Gaurko menuari bota deusie begiradatu bat, eta bazkaltiarren zerrendari be bai. Jantokia ixten danean, batu eta garbitu egin beharko dabe dana.

Pozik dagoz; egia esan, pozik baino pozago. "Ni abesten nator beharrrera. Galdetu lankideari...", esan deusku Rebecak, "Zerbitzuari oso ondo deritxat. Niri oso ondo etorri jat, behar egiteko, eta seme-alabek eta biok jan ahal izateko". Hainbeste arazoan artean, jantokiak Soniari be ekarri deutso nasaitasun apur bat. "Senarra, seme-alaba biak eta laurok etorten gara hona. Ekonomikoki nabaritu egiten da, jakina, nasaiago gabilz".

Ez da erraza estutasun ekonomikoak pairatzen ari dirala besteei esatea, etxean oinarriko beharrianak betetako nahikoa baliabiderik ez dagoala besteen aurrean aitortzea,

laguntzea eskatzea... Are gitxiago Derio bezalako herri txiki baten bizi zarenean, guztiek alkar ezagutzen daben herri bat danean. "Noski, egia da hasieran lotsa emoten deusula, ez da erraza... Baina hemen guztiok gagoz egoera antzeko baten... Nik behar dauen edonor animau nahi dot hona etortera. Guztiok gagoz pozozik zerbitzuagaz". "Ziur asko jente asko ez datorrela lotsa emoten deusulako", gehitu dau Rebecak, "Gatxa da, kontrakoa ez dot esango, baina gatxagoa da lapurtu behar izatea". Gainera, emakume biek ziurtatu deuskue jantokian oso giro polita sortu dala, eta dagoaneko familia handi bat bezala dirala.

Bazkaltiarrek hasi dira jantokian sartzen, eta Rebeca eta Sonia sukalderra abiau dira lehenengo platera serbiduten hasteko. "Jantokia abendutik aurrera be zabalik egongo ahal da!", esan deuskue.

*"Abendutik aurrera be zabalik egongo ahal da!"*

tira. "Egitasmoa itxura hartzen joan zanean, ikusi zan beharrezkoa izango zala langile bi kontratetea. Baldintza bi ipini ziran: bata, herriko langabetuak izan eitezala; eta bestea, jantokiaren erabiltzaileak be izan eitezala", azaldu dau Begoñak.

Egitasmoak 15.000 euro inguruko pre-supuestoa dau eta, hasteko, abendura arte egongo da martxan. "Beno, egia esan, hasi baino ez dogu egin, eta baliteke zerbitzua jente gehiagok eskatzea. Ondo aztertu behar doguz datozen hilabeteetan azaltzen diran beharrianak, egitasmoa modu egokian kudeatzeko eta, beharrezkoa bada, bere iraupena luzatzeko". Jantoki soziala derioztarrei dago zuzenduta, baina Udala prest dago zerbitzua Txorierriko gainontzeko herritarrei be zabaltzeko.



Bai Euskarari  
**urrats biziak**

ziurtagarriena bai bera  
www.bai.org

**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Baserniko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

**HAUR-MODA  
TxIMELETA**

Gernikako Arbola, 8 DERIO  
94 454 14 35

**GOIZALDE**

**PELUKERIA**  
**Estetika**

94 455 81 44  
Anguleri 2. behe Larrabetzu-Bizkaia



## Aurrera Altzora!

*a: Fernando de Lera*

Berrehun eta hogeita hamar pertsona inguru batu ziren irailaren 21ean Sondikan, Altzora euskara elkarteak antolatutako Euskal Jaiarekin bat egiteko. Elkartea pozik azaldu da herritarrek eta Txorierriko euskaltzaleek emandako erantzunarekin, eta, adierazi dutenez, ekintza hau urteko egutegian hitzordu finkoa bihurtzea nahi dute.

Goizean, umeentzako zirko tailerra eta hegazti harraparien erakustaldia egon ziren, eta herri bazkarian euskara eta giro ona izan ziren nagusi. Taberna ibiltaria jo eta ke ibili zen bazkalondoan, euskal kantutegia errepasatzen eta han bildutakoak eurekin batera kantatzera animatzen. Egia esateko, ez zitzairen lan askorik kostatu. Jaiak luze jo zuen.





# Bizitasuna dugu ikurtzat

Euskaraz aritzea dugu helburu nagusitzat. Euskara hizkuntza bizia izanda, makina bat ekintza egin daitezke euskaraz. Ondo dakigu hori, eta burua ideiaz beteta dugula itzuli gara oporretatik.

Asko dira euskaraz berba egiteko ohi-turirik ez duten txorierritarrak. Batzuek ume-umetatik jakin arren, ez dute euskaraz berba egiten, eta beste askok, ostera, nagusitan ikasi dute euskara, baina ikasitako hori gero ez dute praktikatuko. Arrazoiak asko izan daitezke: txarto egingo duten beldurra, lotsa... Edo, beharbada, noekin berba egin ez edukitzea. Berbalagun egitasmoa hutsune hori betetzen ahalegintzen da, eta, horretarako, euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak ba-

Eguzkiak, hondartzak, mendiak, herriak, txoko berriek..., eta batzuetan euriak ere, lagundu digute indarrak hartzen. Hala, berbalagunok gogotsu etorri gara ikasturte berriari aurre egiteko. Animatuko zara zeu ere bai?

*Egitasmo honetan parte hartzeko behar den baldintza bakarra hau da: euskaraz berba egin nahi izatea*

tzen ditu. Batzuek hizkuntza praktikatuko ahal izateko; eta besteek euren ezaupideak konpartitu ditzaten. Guztiek euskaraz berba egiteko ohitura barnera dezaute.

Beraz, zeuk ere, orain arte ez baduzu egitasmo honetan parte hartu, aurten duzu aukera, aurten hartu behar duzu parte. Berdin da euskaldun zaharra izatea edo euskara ikasten ibiltzea; euskara



**berba lasun**

**INFORMAZIOA:**  
**Telefonoa:**  
635 75 35 95  
**E-mail:**  
txorierrri.berbalaguna@gmail.com  
**Bloga:**  
www.aikor.com/txokoa/berbalagun  
**Antolatzaileak:**  
TOTOAN TEEF  
 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea




**Peñasko arraindegia**

Mendiko, 4  
48170 Zamudio  
Tel: 94 452 0808

**BAR RAFI**

ESPEZIALITATEA: PINTXOAK

Rafael Garcia Tejero

Oiz Kalea, 5  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

T: 94 406 08 08  
Mobila: 607 406 613

**R P A**

MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA  
SAREEN MANTENIMENDUA  
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com

maite baduzu eta gure hizkuntzari ekarpen eder bat egin gura badiozu hauxe duzulako momentu egokia. Izan ere, beldurra, lotsa, lagun euskaldunik ez edukitzea, denbora falta, ohiturarik eza, eza-gutza edota ausardia falta gainditzeko sasoi da. Aurten bai. Aurten lagun berriak ezagutuko ditugu tailerretan, zeure gustuko kirola egiten, artea ezagutzen edota sukaldaritza ikasten, besteak beste. Gainera, egitasmo honetan parte hartzeko bete behar den baldintza bakarra hau da: euskaraz berba egin nahi izatea. Eta horretarako, nahikoa da astean ordubete libre izatea.

### Bizitza berritu

Euskaraz berba egiteaz gain, hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera ere izango dugu berbalagunok. Izan ere, ekintza osagarri sorta zabala antolatzen da hilerro, parte-hartzaileek elkar ezagutzeko eta euskaraz edozer egin daitekeela erakusteko: mendi irteerak, kirolak praktikatzea, perretxikotan joan eta horiek prestatzea, ikastaroak, bazkari-afariak, txangoak... Bizitza bera berrituko duzu! Bizimodua ere hobetu egingo duzu! Eta hasteko, bisita gidatua antolatu dugu Bilboko Arte Ederretako museora. Bisita urriaren 24an, 10:00etan, egingo dugu.

Ikusten denez, egitasmoa dinamizatzeko, partaideei eskaintza zabala ematen zaie, eta, interesa mantentzeko, arduradunak talde bereziak sortzen ditu. Taldeok ekintza baten inguruan elkartzeko diren berbalagunok osatzen dituzte. Adibidez, aurten ere martxan jarriko diren frontenis taldeak ipin ditzakegu. Beraz, talde batzuk mugitzen hasi badira ere, ikasturteari hasiera ofiziala urrian emango zaionez gero, orain duzu momentu egokia proiektu atsegin honetan zeuk ere protagonista izateko. Zertan parte hartu nahi duzun pentsatu eta gurekin harremanetan jarri baino ez duzu egin behar. Zain duzu euskara.



## “Nigaz euskeraz egin ahal dabela jenteak jakitea gura dot”

ITZIAR IBARRONDO | berbalaguna

Itziar Ibarondo Sondikakoa da. Berrogei urte ditu eta soinketa irakaslea da, eta batez be euskerea maite dau. Berbalagun taldean orain dala lau urte inguru emon eban izena. “Herrian ez dogu euskeraz berba egiteko aukera askorik. Badago jente asko badakiana edo euskerea ikasten dabilena, baina erabilten ez danez... Nik gura dot jenteak jakitea euskeraz egitearen alde nagoala eta nigaz euskeraz egin ahal dabela”.

Azaldu deuskun moduan, bere taldea paddelean egiteko batzen da gaur egun. “Hasieran, seme-alabak igerilekuan egozan bitartean alkaritzen ginan, euskeraz mintzatzeko edota mahai-jokoren baten ibilteko”. Taldea astean behin batzen da Sondikako pistetan. Itziarrek balorazio positiboa egiten dau Berbalagun egi-

tasmoaren ganean. “Egitasmo honetaz gainera, euskerearen inguruko beste ekintza batzuk be egon beharoko litzatekezala pentsetan dot. Halanda be, uste dot Berbalagun proiektua oso ondo dagoala, eta konturatzen zara, egitasmoan parte hartzen dozula jenteak badakienez, etortzen jatzuzan euskaldunek euskeraz egiten deusuela”.

Sondikoztarrari gustauko litxakio bere taldeko kideak animau daitezala Berbalagun egitasmoaren haritik egiten diran beste ekintza batzuetan parte hartzera. “Polita da edozein ekitaldiren inguruan guztiok batzea euskeraz egiteko”. Gainontzeko herritarrek be animau gura dau proiektuan parte hartzera. “Euskerea maite badozu, oso aukera polita da geure hizkuntzea herrian bultzatzeko”.

**Club Hípico Aretxalde**

Pony club - Zaldiketa ikastaroak  
Aisialdirako landak - Apopilo zarbitzua  
Salto - Txangoak - Animaliairen heziketa

Telefonaia:  
**IBON - 659 90 75 88**  
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

**GOIKO TABERNA** Taberna-jatetxea  
*Emiliano*

Menu berriak antolatzen • Eguneko menua eta karta  
Etara oraratuako platerak • Jantzeriak eta kokoteak  
Bardak antolatzen • Jantoki zahar

R.º Garaioitza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia

**LEJARRENE JATETXEA**  
Garaioitza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Goyo García eta Jose Angel Mentxaka, tipi-tapa Deriotik Iruñera

## “Momentu on asko bizi izan ditugu, eta txar bakar bat ere ez”

Derioztarrek 180 kilometro egin dituzte abuztuan, herritik Iruñera. Buruan aspalditik eduki duten proiektua izan da eta aurtan animatu egin dira egia bihurtzera. Ibiltariekin beste hiru lagunek bat egin zuten helmugara ailegatzeko hiru egun faltatzen zirenean.



**Zazpi egun eman dituzue tipi-tapa mendian zehar. Zeuen burua prestatuko zenuten alde aurretik.**

Egia esan, ez da gehiegi behar. Mendian apur bat ibiliz gero, 20 edo 30 kilometroko etapak ez dira hainbestera-ko.

**Ibilbidea bera, bai, ezta?**

Bai. Ibilbidea eta etapak paper gainean –gaur egun, google.maps gainean– eduki ditugu zehaztuta. Baina ez gene- kien egunekoa betetzeko gai izango ginen, faktore asko daudelako: nekea, indarrak, eguraldia... Eta azkenean osorik bete dugu aurreikusitakoa. Ibilbide gehiena GR batzuk aprobetxatuz egin dugu. Markatuta daude eta errazagoa da. Gainera, leku zoragarrietatik pasatzen dira.

**Zer eraman duzue motxilaren barruan?**

Pisu gutxi, egunean ordu asko egin behar direnez, ez delako komeni kargatu- ta joatea. Koltxoneta eta lo egiteko zakua

eraman ditugu, aldatzeko arropa, ura eta janari apur bat. Soineko arropa gutxi ere eraman dugu, garbitzeko iturriak eta errekek daudelako.

**Zelan eta non pasatu dituzue gauak? Non egin dituzue otorduak?**

Teorian, etapa guztien amaieran badago non lo egin: landa-etxeak, ater- peak... Baina gu joan ginen egunetan denak zeuden beterik. Beraz, gau gehie- nak elizetako arkupeetan eman ditugu. Gau bat, nahita, haritz baten azpian eman genuen; eta beste bat, lbargurenen alo- katu genuen landa-etxe batean. Bestalde,

*“Gau gehienak elizetako arkupeetan eman ditugu; bat, haritz baten azpian”*

egunero aurkitu dugu tabernaren bat bazkaldu edo afaltzeko. Ondo etorri zaigu telefonoan internet izatea, aurretik ziurtatu behar delako tabernak zabalik daudela. Osterantzean, sorpresak izaten dira. Adibidez, Legutio osoan ez genuen non afaldu topatu, baina salbuespena izan zen.

**Zelako esperientzia eduki duzue?**

Oso ona. Oso gustura amaitu genuen Iruñeko Gaztelu plazan. Momentu on asko bizi izan ditugu, eta txar bakar bat ere ez.

**Eta batez ere Euskal Herriko paisaia ezberdinez gozatzeko aukera eduki duzue.**

Oso paisaia ezberdinetatik ibili gara. Kontuan izan behar duzue oso errepide gutxi zapaldu dugula, ia dena mendia edo landak izan direla. Bizkaian, pinua da nagusi. Lautadara igonda (bigarren eta hirugarren egun osoak) haritz eta pago- pean ibili ginen. Gero, gari-soloak Arabako lautada gurutzatzeko; Urbasara igo, eta berriro haritzak eta pagoak; mendi garbia, Andia zeharkatzeko. Eta azken egunerako, sorpresa atsegina: kilometro asko zuhaizpean egin genituen, Arakil ibai ertzetik, esaterako. Eta Iruñera sartze- ko, noski, gari-solo luzeekin eta asfaltoarekin egin genuen topo.

**Ospatuko zenuten.**

Ba, ez pentsa. Iruñera eguerdiko ordu biak pasatuta heldu ginen eta etxera itzultzeko autobusa arratsaldeko bostetan ateratzen zen. Beraz, garagardo batzuk edan genituen beroa kentzeko, bazkaldu egin genuen eta arin joan ginen autobus-geltokira.

**Hau bezalako beste proiekturik?**

Buruan beti daude proiektuak. Gauzatu behar.





*Gurpidek kanpaina bat jarri dau martxan, herritarrak otzarakide egin daitezak*

deutse lanagaz jarraitzeko. Era berean, eroslea ziur egon daiteke, alde batetik, baserritarrak bere beharraren truke prezio duin bat lortzen dauena, eta bestetik, bere diruaren truke kalidadezko produktuak eskuratzen dituana, behar baino gehiago ordaindu barik. Horrezaz gainera, naturari be ekarten deutso onura, bere kontsumo-ohituren bidez ingurumena zaintzea aukeratzen dauelako. "Baserrien biziraupenean inplikauz, gure paisajearen mantentzea ziurtatzeko pausoak egiten dira eta, ekoizpena eta kontsumoa toki berean egiten diranez, aurrezten dan energia kopurua handia da".

Gurpidek otzarakide egitera animaten ditu beste ekoizpen eta kontsumo-eredu baten alde dagozan herritarrak. Asteroko produktu otzara bat jasotzeko interesa dabenak [www.gurpide.org](http://www.gurpide.org) webgunean sartu daitezke, izena emotea egiteko.

## Bertokoa indartuz

Gurpide Larrabetzuko baserritar eta kontsumitzaileen alkarteak kanpaina bat jarri dau martxan irailean, herriko kontsumitzaileak bertoko produktuak kontsumidutera animeteko. Azken urteotan, baserritik bizitzeko gogoia daukien gazteak etorri dira Larrabetzura eta, hori dala eta, Gurpidek herritarren inplikazio zuzena eskatzen dau, "kontsumitzaile zein baserritarrentzat onurak baino ez dakarzan planteamentua zabaltzeko: produktu-otzarak astero banatzea. Izan be, sasoiari sasoiako produktu freskoak,

bertokoak eta era garbi baten ekoiztuak dira elikadura osasuntsu baten oinarriak sendoena".

Alkartetik azaldu daben moduan, otzaren sistemak abantailak ditu, epe ertain-luzerako konpromisoak ezarten diralako. Halan, bidezko merkataritzak onura komunak ekarten deutsez baserritarrei, kontsumitzaileei eta naturari. Baserritarrei jagokenez, otzaren sistemak baserriko lanen antolakuntzea errazten dau eta diru-sarrera finko bat eukiko dabela jakiteak nasaitasuna emoten

### Baserritarren azokea

Bestalde, eta urtero legez, aurton be Larrabetzuko Baserritarren Azokea antolatuko dau Gurpidek. Ha domeka baten egingo dabe lehendabiziko aldiz, urriaren 20an hain zuzen be. Azokea goiz-goizetik bazkalordura arte egongo da zabalik eta hara hurbiltzen danak Larrabetzun bertan ekoiztutako produktu gozoak aurkituko ditu Udaletxeko Plazan: ortuariak, ogia eta opilak, txakolina, gaztaia, artisautzea... Horrezaz gainera, alkarteak produktu bat aukeratu dau eta modu ezberdinetan prestauko ditu, bisitariak probau daien.

**LOTERIA LEZAMA**

BONOLOTOA  
LOTERIA PRIMITIBOA  
1-X-2  
SARITZARRA  
EUROMILIOAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO  
LOTERIEN EHRESEIBAK  
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,  
TABERNENTZAT, ETAB

Aretxalde, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87

**KIMA**

Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gutiak 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77  
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

48196 LEZAMA (BIZKAIA) • 48196 LEZAMA (BIZKAIA)

**A.T. LEGU**

BEHARTSAILINTZAN ETA BEHAR-LENDIAK

F.: 94 455 64 57 T.: 94 455 61 98

# Atzerriko hizkuntzak jakiteko garrantzia



Euskaraz eta gaztelaniaz gainera, atzerriko hizkuntzak jakitea ezinbestekoa da gaur egun. Esandakoa ez da berria, aspalditik dakigun errealitatea baizik. Atzerriko hizkuntzak jakitea lagungarria da bidaia-tzeko, beste herrialdeetako lagunekin eta kulturekin hartu-emanetan aritu ahal izateko... eta kasu batzuetan, baita Interneten nabigatzeko ere. Baina hizkuntzaren alde atseginagoa alde batera utzita, atzerriko hizkuntzak jakitea ezinbesteko baldintza bihurtu da langileak hautatzeko prozesuetan.

Adituen esanetan, hizkuntzarik inportanteenak hauek dira: ingelesa, gaztelania, mandarin-txinera, frantsesa, alemana, portugesa, arabiera, errusiera, japoniera eta italiara. Nolanahi ere, haietako bakar bat jakitea ez da nahikoa gaur egun, eta enpresak gutxienez hizkuntza bi dakizkiten langileen bila dabilta.

Olatz Amarika Larrabetzuko Ikasgela akademiaren zuzendariak ondo ezagutzen du aurreko lerroetan esandakoa. Hala, ingelesaz gainera, duela urte bi txinera ikasteko aukera eman zuen bere akademiari, eta aurten aleman eskolak eskainiko ditu. "Txinera etorkizuneko hizkuntza izango zela entzuten zen duela urte batzuk, baina nik uste dut azken aldian hori

## Txorierrin, non?

–**AM.** Errenentari 16, Sondika, 94 453 64 08; Garaioltza 120 D, Lezama, 94 455 64 69.

–**Ikasgela.** Aita Paxi Ugalde 12, Larrabetzu, 615 70 73 61.

–**E. class.** Txorierriko etorbidea 14, Zamudio, 94 452 03 31.

–**Ikasi.** Enara kalea 10 behea, Zamudio, 94 452 04 96.

–**Egizu.** Mitxine, 4, Sondika, 656 70 36 85.

aldatu egin dela. Guk alemanaren aldeko apustua egingo dugu ikasturte honetan".

Amaia Ruizek eta Jose Ramón Palaciok AM ingeles akademia dute Sondikan eta Lezaman. Eskarmentu handia dute enpresa munduan, eskola bertan ere ematen dutelako. "Ingelesez moldatzen laguntzen diegu, adibidez, beren produktua edo zerbitzua atzerrian aurkezteko gai izan daitezten, edo bilera bat jarraitu ahal dezaten". Esan digutenez, enpresa askok gutxienez ingelesa dakiten langileak nahiago dituz-

te, kasu batzuetan atzerrira joan behar izango direlako. "Are gehiago, nahiz eta hizkuntza lanpostu baterako derrigorrezko baldintza ez izan, batzuetan galbaretzat erabiltzen da, balitekeelako langile horrek etorkizunean beste lan mota batzuk egin behar izatea".

Hizkuntza akademiara hurbiltzen den ikaslearen profila askotarikoa da. Alde batetik, ohiko ikasleak ditugu: eskolaz kanpoko laguntza eskatzen dutenak; curriculum osatzeko, titulu ofizialak eskuratzea helburu dutenak; eta hizkuntzarekiko harremana txikitatik dutenak. Hala ere, gero eta ohikoagoa da beste hizkuntza batean komunikatzeko gai izan nahi duten nagusiak ikustea akademiatan. Normalean, bidaiei begira animatzen dira atzerriko hizkuntza ikastera; ingelesa, gehienbat. Era berean, gero eta gehiago dira akademiara lan arloari lotuta dauden berariazko beharriengatik jotzen dutenak. "Guk curriculumak ingelesez egiten irakatsi egin dugu, baita lan elkarriketak simulatu ere", esan digute AMtik.

## Praktikara eraman

Atzerriko hizkuntza bat ikasteko arrazoia bata nahiz bestea izana, irakasleen iritziak bat datoz: inportanteena komunikazioa da, hau da, ikasleak modu arin batean hitz egin dezala eta gauza izan dadila nahi duena adierazteko. Horretarako, praktikara eraman behar da hizkuntza, eta behar horretan eskura dugun edozein aukerak lagundu ahal digu, hala nola filmak jatorrizko bertsiotan ikustek, interneten nabigatzeak, liburuak eta aldizkariak irakurtzek edo atzerriarrekin geratzek, mintzamina lantzeko. Atzerrian denboraldi bat pasatzea ere oso lagungarria da. AM eta Ikasgela akademiatan lagunduko digute bidaia hori prestatzen, edo halako bidaietan aditua den agentzia batera bideratuko gaituzte.

Hizkuntzak irakasteko moduak asko aldatu dira azken urteotan eta batez ere sistema bisualagoak eta dinamikoagoak erabiltzen dira gaur egun. "Eskolaz kanpoko jarduerak ere antolatzen ditugu", azaldu du Olatzek, "Txangoak prestatzen ditugu atzerrira. Hori taldeka egiten ditugu eta zabalik daude herritar guztientzat. Udan, adibidez, hilabete eman dugu Idahon. Beste era bateko jarduerak antolatzea ere aztertzen gabiltza, esate baterako, poteo bat ingelesez".

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Elaiak alde egin baino lehentxuago abiatzen da ikasturtea gure paraleloan. Berez, kurtsoaren hasiera eriteko sasoia da, gero, han garagarrilean uzta batzekoa –Gipuzkoan eta Nafarroan ekainari esaten joko garagarri; Bizkaian uztailari–.

Gure irakaskuntzan ingelesa mehatz eritein da, antza. Laster erakutsiko deusku estatistika bidez, ingelesa **euskeria-**

# Euskaldunon ingelesa

**gaz** eta gaztelaniagaz batera hiru urtez ikasi ostean lortu dan uzta. Edozelan be, proiektu hiru-eleduna aurrera eroateko, gaurkoz, irakasleen % 17 da gai. Hau da, ingeleseko B2 maila dabenak –euskarako PL1en parekoa– gitxi dira. Horrek guzti horrek erakusten deusku etorkizunean

be herrenka edo arrenka ibiliko dirala euskaldunak ingelesez.

EITB taldeko telebista kateak ezaguturik –Hamaika telebista-eta ahaztu barik– eta Espainiako kateen barri izanik, errez konturatzen naz BBCko albistegiak beste mundu **bet** dirala.

Hegoaldeko euskaldunok ingelesik, frantsesik edo alemanik ez badakigu, leiho ertzirekitik begiratzen deusagu munduari, gureaz gainera espainola baino jakin ezik. Azken baten, kultura hispanikoaren atmosferan hartzen dogu arnasa. Frogarako, erreparatu egiezue lagunarteko barriketei edo etxeetako alkarrizketei: dana da Bar + cenas. Gauza berbera eskolako gaietan nahiz irakurketarako liburuetan.

Ondorioz, hizkuntza espainolaren muga fisiko eta mentaletara loturik bizi gara, iretargiaren argia eguzkitzat harturik. Harrigarriena da anomalia hori naturalizat hartzea eta kurtso barriari jarrera aldatuz ez oratzea.

Krisiak krisi, ingelesaren gai honetan be zein da erruduna dirua ala burua? Harri-jasotzaile hain indartsuak ditugun herri honetan ezin eutsiko ete deusagu goian Sisiforen harriari?



(\*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

  
**lezama**  
consultorio veterinario  
albaitaritza klinika  
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga  
BI-515

  
Medikuntza orokorra  
Txertaketak  
Parasitoak hil  
Mikrotxipa  
Kirurgia  
EKG  
Analisiak  
Ospitalizazioa  
Ekografiak

  
servicio de urgencias  
24h



94 455 56 19    Aretxalde, 21bis    •    48196 Lezama

**kalam**  
cosmética elite cosmética

Laser lipoliticoa  
Photon  
HHP terapia  
Presoterapia  
Aurpegi-tratamenduak  
Gorputz-tratamenduak



Aretxalde, 65 • 48196 Lezama • 94 401 42 43

## Etxeko sukaldaritza

## Zanoria-krema



Maite Lekerika, sukaldaria

## Osagaiak:

- Kilo bat zanoria
- Porru bat
- Patata bi
- 50 g gaztai (birrindua)
- Orio txorrostada bat
- Gatza
- Ura edo salda arin bat

## Prestetako errea:

Lehenengo eta behin, barazkiak garbitu eta txikituko doguz. Porrua oriotan erdi egosiko dogu eta, ondoren, zanoriak eta patatak gehituko doguz. Barazkiei saldea edo ura botako deusegu eta 20 minutu inguru eukiko doguz egosten. Gaztaia eta gatza gehituko doguz. Azkenik, dana irabiatu dogu eta krema mahaira aterako dogu

Hegaluzea  
pistoagaz

## Osagaiak (lau lagunentzat):

- Lau hegaluze-solomo
- Piper gorri bi
- Piper berde bi
- Kipula bi
- Kalabazin bi
- Berakatz atal bi
- Tomate frijitua
- Oliba orioa
- Gatza

## Prestetako errea:

Barazkiak garbitu eta txikituko doguz. Ondoren, kazuela baten ipiniko doguz orio apur batez eta ordena honi jarraituz: piperrak, kipula, berakatz eta kalabazina. Gatza botako deusegu eta eragin dogu, saboreak nahastu daitezkan. Barazkiak eginda dagozanean, tomatea gehituko dogu eta bost minutuan eukiko dogu egosten. Hegaluzea pistoaren gainean ipiniko dogu eta su motelean egingo dogu. Alde bakotxetik hiru minutuan izango dogu.



ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA  
Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI  
ALBAILARITZA  
Nerea Pedraza Gal. 537  
COOP. BARRADERA ZAMUDIO DERIO  
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15  
Faxa: 94 454 12 15

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616  
94 452 1624  
Pol. Torrelagoiti  
Pab. 6, Bloque 3  
48170 ZAMUDIO  
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:  
TXAPA ETA PINTURA

t i k  
t a k

EGUNEKO MENUA  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
edaria 9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO  
T: 94 454 55 55

Familia osorako  
kalitatezko arreta,  
zure esku

Zainduz Beheak  
Logopedia  
Podologia  
Kiroprasajen

clínica dental  
ZAINDUZ  
hortz klinika

Txarriren etorbidea, 9 - Larga | Arteaga eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun  
eta futbollean jokatu, etorri zaitzue Trippyra, Deriora

Beheko Kalea Bajó  
DERIO



# ZORIONAK!

Gero eta potxoloago dago gure Aritz maitea. Musu handi bat!

Zorionak Aran! Azkeneko 3<sup>a</sup> aprobetxatu. Beti gazte!

- Argazki txikia: 15 euro
- Argazki handia: 25 euro

Aikor! laguntzat x20ko deskontua

Argazkia eta testua:  
-Hilaren 15a baino lehen agindu  
-aikortxori@aikor.com helbidera

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOZOGINTEA APARTA  
**ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK**

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak  
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaladaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Mungaiate etorbidea, 25  
Fax 94 454 14 18 48180 DERIO

Nire Autoocasion **NA**

**INPORTAZIOA ETA SALMENTA**

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA  
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92  
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

harategia - urdaltegia  
**MIGUEL**

ESPEZIALITATEAK:  
URDAIAZPIKOA  
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 \* DERIO 48160 \* T: 454 52 94

## Erakusketak

### Sondika

- > "Udako oporrak", Altzora euskara elkar-  
tearen eskutik. Urriaren 1etik 14ra,  
liburutegian.
- > Sondika Goiri elkartearen argazkiak.  
Urriaren 16tik 30era, udal liburutegian.

### Derio

- > Derioko andre baserritarak. Urriaren  
4tik 30era, Kultur Birikan.

### Zamudio

- > Pobrezia eta kanpo zorra. Urriaren  
18tik 25era, Gazte estazioan.

## Hitzaldiak

### Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan. Urriaren 17an,  
20:00etan, Anguleri kultur etxean.

## Ikastaroak

### Zamudio

- > Ballet (4 urtetik gorako umeentzat).  
Urriaren 7tik aurrera, astelehenetan eta  
asteazkenetan. Izena ematea: urriaren 4a  
baino lehen, udaletxean.
- > Zen meditazioa. Urriaren 17an, 20:00etan,  
eskolako areto nagusian.
- > Gore ikastaroa. Urriaren 31n, Gazte esta-  
zioan.

### Larrabetzu

- > Pachwork. Urriaren 10etik aurrera, egue-  
netan. Izena emateko epea: urriaren 4ra  
arte.

- > Bizkarrezurra zaintzea. Urriaren 19an,  
10:00etan, eskolako gimnasioan. Izena  
ematea: urriaren 11ra arte.

## Ikuskizunak

### Sondika

- > *Far west* antzezlan, Yllana taldearen  
eskutik. Urriaren 26an, 20:00etan, kul-  
tur etxean.

### Zamudio

- > Zinea. Urriaren 27an, 18:00etan, Gazte  
estazioan.

### Larrabetzu

- > Gazteei zuzendutako zineklubean izena  
ematea: urriaren 11ra arte.
- > Zinekluba: *Together*. Urriaren 19an,  
17:00etan, Anguleri kultur etxean.

## Irteerak

### Sondika

- > Arrugaeta-Orozko. Urriaren 20an. Izena  
ematea: urriaren 17ra, liburutegian.

### Zamudio

- > Atxarte-Kanpanzar. Urriaren 6an,  
Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Artikutza. Urriaren 20an, Arroeta  
mendi taldeak antolatua.

### Lezama

- > Aramaio. Urriaren 5ean, Gailur mendi  
taldeak antolatua.
- > Ebroren bidea. Urriaren 11tik 13ra.  
Izena emateko epea: urriaren 7ra arte.  
Zorribike taldeak antolatua.
- > Europako mendiak. Urriaren 25ean,  
Gailur mendi taldeak antolatua.

## Jaiak

### Derio

- > Adinekoen Nazioarteko Eguna. Urriaren  
1ean, 19:00etan, Kultur Birikan.  
Nagusien Etxeak antolatua.

## Kirolak

### Zamudio

- > Saskibaloitxapelketa. Urriaren 5ean,  
18:00etan. Izena ematea: urriaren 5era  
arte, Gazte estazioan.
- > Mahai-futbol txapelketa. Urriaren 11n,  
20:00etan, Gazte estazioan. Izena  
emateko epea, urriaren 11ra arte.

## Bestelakoak

### Sondika

- > Kromoak trukatzeta. Urriaren 6an,  
12:00etan, Goiri erdiko plaza.

### Derio

- > Derioko andre baserritarrei omenal-  
dia. Urriaren 15ean, 18:00etan, Kultur  
Birikan.
- > Tokiko agenda 21. Urriaren 16an,  
19:30ean, Kultur Birikan.  
DerioKOMunikazioak antolatua.

### Larrabetzu

- > Parekidetasunari buruzko III. Planaren  
zirriborroa lantzeko bilera. Urriaren  
1ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.  
Hondakin organikoak biltzeko Austriako  
ereduan oinarritutako esperientzia pilo-  
tuan parte hartuko dutenen bilera.  
Urriaren 3an, 19:30ean, Anguleri kultur  
etxean.

# Urriari Danerik Paraje Elkartearen eskutik, Derioko dendetan...

## %5eko deskontua

Danerik Paraje Txartelarekin egindako 400 € baino gutxiko erosketa guztietan

esleitutako diru partida amaitu arte



## udako

# OUT LET

## denda bakoitzaren aurrean

urriaren 4an, ostirala, goizeko 10etatik arratsaldeko 20etara eta 5ean, larunbata, 10etatik 14etara



Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarte Profesionala

**Danerik paraje!**

Asociación Profesional de Comercios y Servicios de Derio



**VENTA  
AL PÚBLICO**

**JUFER**

Mueble tapizado

**CENTRO DE  
OPORTUNIDADES**

**GARANTÍA  
TOTAL**

**FÁBRICA**

**DE SOFAS**



Soilik  
**EGUN** bakar  
**BATZUETAN**

Gure jarduera  
ezagutzera  
emateko

**800 ARTIKULU**

baino gehiago ditugu salgai:

**3+2 sofak, chais longueak, relax...**

**ordaindu ez diren eta**

**baliogabetutako eskaeretatik**

**datozen produktuak dira**

**Txorierra etorbidea, 24  
(Sondika-Derio errepidean)  
48180 LOIU  
94 471 24 38**